



ttipi-ttapa



Birjina
MARIEZKURRENA
Leitzako musikaria
→ 9

2009ko azaroaren 12a | XXIX. urtea | 506. zenbakia

www.ttipi.net

Kirola

Gehigarri berezia → 25-48

LESAKA → 13-16

Feria eguna
azaroaren 19an

GOIZUETA → 52

Umore Onaren festa
azaroaren 21ean

URDAZUBI → 59

Kantu Zaharren VI.
Eguna azaroaren 28an

SARA → 61

Eguberrietako merkatua
hazilaren 28an



Etxalarri buruzko bertze bi lan argitaratu ditu Pello Apezetxeak: ***Etxalarko etxeen izenak*** eta ***Etxalarren historiako zenbait jakin-garri***. Lehenbizikoa Patxi Salaberrirekin elkarlanean egin du. Urteetan egin duen/du ten lan haundiaren fruituak dira.

ELKARRIZKETA → 3

Pello APEZETXEA:

«Eskura nuena jendeari eman behar niola pentsatu nuen»




ARGAZKIA: GOIKO

ERREPORTAJEA → 4-5

Isidoro Fagoaga Berako Udal Musika Eskolak 30 urte bete ditu

Lokal finkorik gabe 30 ikaslerekin hasi zen ekimena, 3 eta 70 urte artean dituzten 160 ikasle eta egoitza propioa izatera ailegatu da.



KIROLIZKETA → 64

Judit Saizar Leitzako triatloilariarekin solasean

Txiki-txikitatik kirolari, 16 urte bete berri dituean, palmaren bikaina osatu du.



Estilo
ugariko
mobleak

muebles
ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bitirria 26 • SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tel: 948 63 77 80 • LESAKA



EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	100	200	500	1000
Egutegiak (8,5 x 5,5cm)	70€	85€	110€	150€



 **Kulturkari**
www.grafikaspublikoak.es

Andutzeta, 12 - 31760 Etxalar - Tel. 948 635 458 - kulturkari@tipi.net

Ez da Etxalarri buruz idatzi duen lehenbiziko aldia, bertzeak bertze, Etxalarko Elizari, etxeei eta Usategiei buruz ere liburuak eginak baititu. Baina orain bertze bi lan kaleratu ditu:

Etxalarko etxeen izenak eta Etxalarren historiako zenbait jakingarri. Lehenbizikoa, Patxi Salaberriekin elkarlanean egin du eta honetan lan handia egin badu, zer erranik ez bi-

garrean. 800. urtetik XX.mendera herriaren historiaren zati handi bat jaso baitu. Urteetako lanaren ondotik, informazioa jendearen eskura utzita gustura dago Pello Apezetxea.

Pello APEZETXEA | Etxalarko apeza

«Lehenagokoa ezagutuz, gu eta gure gaurkoa ezagutzea garrantzitsua da»

G. PIKABEA | ETXALAR

Zerk motibatu zaitu liburu hauek idazteko?

Hasieran jakin nahia zen, lehen nola zen, zer gertatu zen jakiteko gogo. Betidanik interesatu zait eta bertze helbururik gabe, datuak kuaderno batean biltzen nituen. Azkeneko urteetan, ordea, zahartzen ari nintzela eta datu horiek zokoan gelditu eta egunen batean norbaitek botako zituela-eta, eskura nuena jendeari eman behar niola pentsatu nuen. Eta horrek motibatu nau.

Historiaren parte bat galdua al dugu?

Bai. Nahiz eta liburu hauek bukatu, lehenagoko urteetako materiala balego, segituko nuke. Dakigunez, herria XI-XII.mendean eraiki zen baina orain VIII.ean izan zela dioten datuak aurkitu ditut. Añamendiko entziklopedian 820 eta 1140ko bi batailetan Etxalar deitura ageri da. Horrez gain, bertze agiri batek VIII.mendean Bortziariak bazirela dio. Honek badu nolabaiteko argudioa, herria mugan baitago. Mugak defenditu egiten ziren, eta defendatzeko herriak sortzen ziren. Gainera, 1200etik goiti Gaztelak Gipuzkoa hartu zuenean, Gipuzkoatik ere etortzen zen jendea. VIII.mendekoa izan daiteke herria, baina gauza sueltoak dira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pello Apezetxea idatzi berri dituen bi liburuak eskuan.

Liburu hauetan zer aurkituko du irakurleak?

Etxeen izenen liburuan, izenburuak berak adierazten du zer den. Etxeen izenak ageri dira, eta toki eta etxe izenak galtzeko arrisku handia dugun honetan, izenaren balioa zeinen garrantzitsua den nabarmendu nahi izan dut. Historia bat badago, eta orain garenaren parte bat oraingoa bada ere, neurri batean, lehendik etorritakoak ere egin gaitu gu, eta guk egiten duguna izanen da gerokoa. Alde horretatik izenak mantentzea garrantzitsua da. Eta biga-

XIX. MENDEA GOGORRENA

«XIX. mendeko gerrak batez ere, izugarriko sufrikarioaren iturriak izan ziren Etxalarrentzat. Napoleonekin sartu zirenean, orduan etorri ziren negarrak, malkoak eta oihiak. Gero bi karlistaldiak etorri ziren eta herri hauek ikaragarri sufritu zuten. Bertze aldaketa batzuk ere etorri ziren: eskola, argia, tren, bide berriak, burdinolen itxiera eta horren ondorioz, emigrazioa...»

rren liburuarekin berdin. Herrian zer gertatu zen, nola bizi ziren, zer jaten zuten, eskola, osasungintzari buruz... Horiek denek nola funtzionatzen zuten ikustea garrantzitsua da. Gure lehenagokoa ezagutuz, gu eta gure gaurkoa ezagutzea. **Bizimodua aunitz aldatu da mendez mende?** Ez dago informazio gehiegirik eta dagoena eskasa da. Gehien aldatu dena populazioa izan da. Duela 400 urte gaur hainbat bazen, baina gero haunditzen joan zen eta XIX.mendean erdi aldera gaina jo zuen (1.849

biztanle). Gero beheiti hasi zen, beheiti joan da eta azken 10-15 urteotan geldirik dago. Hori Elizan ere ikusten da, ttiki gelditu eta haunditu egin behar izan baitzuten. XIII.mendekoa da, baina XVII. mendeko dokumentuetan ageri denez, haunditu egin zuten jendea ez zelako kabitzen, eta XVIII. ean berriz. Burdinolen garrantzia ere aipatuko nuke. XIX.mendean indarra galtzen hasi ziren baina 1820ko txosten baten arabera, jendearen erdia burdinoletatik bizi zen.

Eta gerrak zer?

XIX.mendeko gerrak batez ere, izugarriko sufrikarioaren iturriak izan ziren Etxalarrentzat. Napoleonekin sartu zirenean, orduan etorri ziren negarrak, malkoak eta oihiak. Gero bi karlistaldiak etorri ziren eta herri hauek ikaragarri sufritu zuten. Mende hura gogorra izan zen, beharbada, gogorre-na. Bertze aldaketa batzuk ere etorri ziren XIX.mendean: eskola, argia, tren, bide berriak, burdinolen itxiera eta horren ondorioz, emigrazioa...

Gustura egin duzun lanarekin?

Bai, betidanik gustatu izan zait jakitea eta orain gustura nago informazio jendearen eskura dagoelako. Egindakoa hor dago eta horrek ordaintzen nau. **Elkarrizketa osoa:** www.ttipi.net-en.

MUSIKA → BERAKO ISIDORO FAGOAGA MUSIKA ESKOLA

30 urte bete ditu Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak

30 ikaslerekin toki finkorik gabe hasi zena 160 ikasle eta egoitza propioa izatera pasatu da

Badu zerbait Berak musikarekin. Eta inork ez du ukatuko herrian dagoen musikarako afizioa. Musika taldeak, txaranga, musikari eta kantari ezagunak, talde ezagunetan jotzen duten musikariak, musika

banda... Eta zaletasuna betidanik egon den arren, afizio horri bultzada indartsua eman diona musika eskola izan da. Aurten 30 urte bete dituen Isidoro Fagoaga Musika Eskola, hain zuzen.

G. PIKABEA | BERA

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola eraikitzeke lehenbiziko urratsak 1979an eman ziren. Modu batera edo bertzer, ordura arte ere, musikaren inguruan jendea mugitzen zen, baina 79a data erabakiorra izan zen. Urte horretan hasi baitziren «ofizialki» lanean.

Begoña Rudi izan zen Berako Musika Eskolako lehenbiziko irakaslea. Ordurako musika klase partikularrak ematen zituen etxean, baina bertze pauso bat eman nahi izan zuen.

«Ordurako Lesakan Musika Eskola bazegoen, eta nola funtzionatzen zuten enteratu nintzen. Garai hartan, hain juxtu, Berako Herriko Etxean musikariekin bilera bat egin zuten eta harat joan nintzen nire proposamenarekin», azaldu digu Rudik. Eta bere asmoa aitzinera atera zen. «Josu Goia, Jaime Elgorriaga eta hirurak Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatoriora joanginen informazio eske». Egin behar zena euren gain hartu eta horrela hasi zen lanean Musika Eskola.

Aski baliabide guttierekin, «oztopo aunitzeekin baina ilusio haundiarekin», orain Labiaga Ikastola dagoen egoitzan hasi ziren lehen solfeo klaseak, berogailurik eta aunitzetan mahairik gabe», dio Rudik. Handik orain Kultur Etxea dagoen tokira joan ziren, eta gero Ricardo Barojara. Eta poliki-poliki, musika tresnak ere sartuz joan ziren: pianoa, akordeoia, txistua, gitarra... Azkenean, Herriko Etxeko lehenbiziko solairuan lokala lortu zuten. «Ikaragarria izan zen hura».

1991N ATEAK ZABALIK

Gauregun musika eskola dena 1991n zabaldu zen. Bortziriak, Mallerreka eta Baztanentzat kontserbatorioa egitea zen Udalaren asmoa eta horretarako eraikin bat beharrezkoa zen. Proiektua, ordea, «potoloegia» izaki –horrela iritzi dio Rudik–, dena bertan behera gelditu zen. Eta musika eskolan gelditu zen guztia.

Udala Nafarroako Gobernuarekin jarri zen harremanetan, eta honek musika eskola publikoaren egitekotan, gastuaren %33 bere gain hartuko zuela hitz eman zien. Bertze %33 Udala ordaintzekotan gelditu zen, eta gainerakoa guraoen esku. «Esan bai, baina bete ez», azaldu du azken urteotan eskolako zuzendaria den Lourdes Izak. Musika eskola eraiki, irakasleak oposaketa publikoaren bidez kontratatu, materiala erosi... Dena egin zen, baina «Nafarroako Gobernuak ez zuen esandakoa bete, eta Udalak bere gain hartu behar izan zuen dena».

Zailtasunak zailtasun martxan jarri zen musika eskola, eta geroztik ez du etenik izan. Gora-beherak, ordea, bai. Jaiotza-tasan izandako beherakadagatik. «Normalean, haurrak zazpi urterekin hasten dira eta duela zortzi urte zazpi urteko haur guttijaio zen. Eta zortzi irakasle izanik, urtean sei-zazpi ikasle apuntatu, irakasle bakoitzarentzako ikasle bat ere ez zegoen», aipatu du Lourdesek. Horrek bere ondorioak ekarri zituen. Eta orduan arte lanaldi osoarekin hiru langile baziren, ikasle kopuruaren beherakadarekin, bi gelditu ziren lanaldi osoarekin.

Baina aspaldi honetan egoerari buelta emana diote. Begoña Rudi ren 30 ikaslerekin hasi zen ekimena, 3 eta 70 urte arteko 160 ikasle eta zortzi irakasle izatera ailegatu da. Eta eskaintza ere zabala du: klarinetea, saxofoia, tronpetea, gitarra –klasi-koa, elektrikoa eta baxua–, txistua eta danbolina, pianoa, teklatua, akordeoia, trikitixa, bibo-



Musika Eskolako irakasleak.



Berako Musika Eskolako txistulariak, Isidoro Fagoagaren omenez eraiki duten buruhaundiarekin.

lina eta perkusioak ikas daitezke. Horrez gain, 3-7 urte artekoentzat musika eta mugimendua dago, eta zaharragoentzat hizkuntza musikala. Gaztetxo eta helduen abesbatzak ere badituzte.

Beratarrez gain, ikasleak inguruko herrietatik ere etortzen hasi direla nabarmendu digu zuzendariak: «Sara, Igan-tzi, Etxalar...». Kriariaren eragina ez omen dute horrenbertze nabaritu,

eta gaineratu digunez, «ikasle helduak gero eta gehiago dira».

Isidoro Fagoaga Musika Eskolatik ateratako musikari eta kantari ezagunak ere ez dira gutti. Denen berri ematea ezinezkoa, baina batzuk aipatzekotan hauek egin daitezke: Joseba Iratzoki musikaria, Igor Telletxea bateria-jolea –musika eskolako irakaslea eta Pantxo eta Peiorekin dabilena–, Leire Te-



BETI PREST

«Herriak musika behar duenean, hor egoten saiatzen gara»

Lourdes IZA
Musika Eskolako zuzendaria



HASIERA GOGORRA

«Oztopo aunitzekin baina ilusio haundia-ekin hasi ginen»

Begoña RUDI
Musika Eskolako lehen irakaslea

URTEA BUKATU ARTEAN EKITALDIAK

Urteroko hitzorduak eta ekitaldi bereziak

Inauteriak, udaberriko kontzertua, Bestaberrri Eguna, Sanestebanak, Lurraren Eguna, Santa Zezilia Eguna, Eguberrietako kontzertua... Horiek izan ohi dira urtero hutsik egiten ez duten hitzorduak. «Herriak musika behar duenean, hor egoten saiatzen gara», erran digu Lourdes Izak.

Baina urteurrenaren harira, bertzelako ekitaldiak ere prestatu dituzte ikasturte honetan. Lurraren Egunean, adibidez, kalejira berezia egin zuten Isidoro Fagoagaren irudia duen buruhaundiarekin. Eskolatik pasatutako musikari ezagunekin ere emanaldiak antolatuak dituzte. Urrian Joseba Iratzokik kontzertua eman zuen eta azaroaren 7an Ametsa Gazte abesbatzak saioa eskaintzekoa zuen –koruko zuzendaria eskolan ari da lanean–. Eta hurrengo zitak hauek izanen dira:

- Azaroak 19: Leire Telletxea akordeoilariaren emanaldia, 18:30ean Musika Eskolan.
- Azaroak 26: Santa Zezilia Egunean kontzertua eta diploma banaketa, 18:00etan Musika Eskolan.
- Abenduan: Josu Goiaren emanaldia.
- 2010eko maiatza: antzerkia, «30 urteotan bizitu dugunaren inguruan». Horretarako Lamixene Bat antzerki taldearekin harremanetan jarri dira eta hauek gidoia egiten ari zaizkie.



lletxea akordeoilaria –musikako karrerabukatu du–, Estixu Pinatxo kantaria –Iruñeko talde batean ari da–, Sexty Sexers eta Borrokan musika taldeak, Jon Iratzoki txistularia–Donostiako bandan–, Izadi txaranga... Zerrenda luzea da. Eta horrelako emaitzak ikusita, irakasleak pozik, noski. «Abesgarria da», aipatu digu zuzendariak.

Duela 20 urte utzi zuten musika eskola Begoña Rudik, eta orain Labiaga Ikastolako musika irakaslea da. Hasierako esfortzu hark mezezi zuen galdetuta, bi aldiz pentsatu gabe erantzun digu: «bai, are gehiago gaur egun nola dagoen ikusita». «Hagitx ongi dago».

AURREKONTUA ETA DIRULAGUNTZAK
Isidoro Fagoaga Udal

Musika Eskola patronatu batek kudeatzen du egun, eta patronatu hori lau zinegotzik, bi irakasle, bi ikasle eta bi gurasok osatzen dute.

250.000 euroko aurrekontua onartu dute ikasturte honetarako. Eta Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ematen dien arren, ez da nahikoa. Joan den urtean, erraterako, 42.000 euro eman zizkien, «eta horrelako aurrekontu batentzat zer da hori?», galdetu du zuzendariak. %33 gurasoek ordaintzen dute eta gainerakoa Udalak.

Herrian 30 urte baino gehiagotan egin izan da musika. Urteak urtera, musikarenganako zaletasuna transmititu diote beratarrek belau-naldi berriei. Baina bi-

de horretan Isidoro Musika Eskolaren lana mugarriz izan da eta 30 urte horretan aritzea bada ospatzeko modukoa.

Hasierako esfortzu hark, berez, mezezi zuen.





Nire txanda
Ruben GARATE

Eskola berria behar dugu

Ez dakit jendea Iruritako eskolaren inguruan sortu den polemikaz enteratu den. Bi hitzetan, «topera dago». Heldu den urtean ez dago lekurik berriak hasteko eta soluzioak eskasak dira. Eskola berria egitea onartu da, baina Udala dela, Gobernua dela, dena luzamendua eta atzerapena da, denbora pasatzen ari da eta urgentzia gero eta handiagoa da. Erakunde guztiak elkartu eta ahal bezain laister soluzionatzea zein erraza izanzen, ez baikara plaza zoragarri baten moldaketaz ezta garrantzirik gabeko gauzetaz ari, «haundiek» egiten dutenaren errurik ez duten haurren hezkuntzaz baizik. Ikasleendako ordenagailuetan ez dakit zenbat diru inbertitzen dela enteratzen zara eta Iruritako haurrek ez dute ikastetxea izateko eskubiderik. Zergatik ez gara oinarririk hasten? Edo ikasle hauek bertzeek baino eskubide guttiago dituzte? Zein dira gure lehentasunak?

Iruritako ikasleek bertzeek baino eskubide guttiago al dituzte? Zergatik ez gara oinarririk hasten?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Goitzen, ezizen eta izenik ez

Iritzi guztiak errespetagarriak diren heinean, iritzi horiei aurpegia eta izen-abizenak jartzea gus-tatzen zaigu. Internet-en informazioaren hara-honata aunitz hedatu den neurri berean, sareak eskaintzen duen anonimotasunaz baliatuta, edozein gai azaldu eta nahi diren astakeriak erantzukizunik gabe zabaltzeko probesten dute batzuk. Zenbaitetan bertzeen izenak erabiliz, gainera.

Nabarmentzekoak



Patxi VILA
Larungo igoeran irabazle



Angel MARIEZKURENA
Kantu Zaharren sustatzaile



Estebe APEZETXE
Solaslaguearen sustatzaile

Gure Txokoak lehenaldiz antolatutako Larungo BTT igoera gogorra irabazi zuen txirindulari beratarak. 8,9 kilometroko ibilbidea osatzeko 41:15 behar izan zituen.

Bertze hainbat kantulagunekin batera *Mahain-guruko kantuak* diska aurketu ondotik, azaroaren 28rako Kantu Zaharren Eguna antolatzen ari da burubela-ri seigarren urtez.

Bortziriak, Malerreka eta Baztanen euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartu eta euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoaren dinamizatzailea da 24 urteko erratzuarra.

Atzera begira → 1990.11.22 / TTIPI-TTAPA 50. zbk



ttipi-ttapako lan taldea 50. alearen aitzakian bildua

Berriki ospatu du ttipi-ttapa aldizkariak 500. alea, diseinu eta eduki berriaz hornitua. Duela kasik hogeitun urte, zero bat guttiagorekin, 50. alea ospatu zuen eta orduko lan taldea, berriemaileak eta laguntzaileak afari batean bildu ziren. Argazkian ageri dra, tartean gure artetik joandako Txema Aldabe, Doneztebeko berriemaile. Batzuk dagoeneko ez dute ttipi-ttapa berriak idazten, bertze batzuk hor segitzen dute hamabortzero bere herrietako albisteak plazaratzen. Zero bat guttiago ez ezik, urte eta kilo guttiago eta ile gehiago zuten gehienek.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranba eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	36€	Ipar Euskal Herria	54€	Amerika eta Australia	120€
Espainia	36€	Europa	54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Neska eta mutil dantza

Xabier SOUBELET (Margolaria eta Begiraleak taldearen arduraduna)

Hondarribiko alardeaz iritzia emateko iduri du herrikoa behar dela eta kanpokoek ez omen dutela ezer ulertzen. Jakina! Nik ez dakit Baztanen gauza bera denez baina, hainbeste arrazoi ditut gaur hitza hartzeko, ez isiltzea erabaki dudala. Lehenik nire burua baztandarra sentitzen dudalako, bigarrenik mutil dantzak gaztetan Maurixiorekin ikasi nituelako, mutil dantzaria izan naizelako, oraino txistularia naizelako eta azkenik gaur egun Begiraleak dantza taldearen arduraduna naizelako. Eta berehala diot; Beharrik, gure euskal kulturaren kondairan, emazteek gizonen dantzak dantzatu dituztela gaur dantza guztiak bizirik egon daitezzen, bai Gipuzkoako arku dantzak, bai Lapurdiko Mutxikoak, bai Xiberuko dantzak, adibidez. Andrearik gabe ainitz galduak egongo lirateke. Aldaketa hori gerta dadin, leku guztietan arrazoi sozialak izan dira nagusi, batean dantza taldeak bizirik iraun behar zuelako, bestean aspalditik gizon eta emazteak berdintasunean bizi izan direlako, azkenean mutiko dantzariak eskax zelako... Berdin da, gauza bera izan den leku horietan guztietan batere arazorik ez da izan, (edo laster konponduak izan dira), baina hemen badirudi ohiturak, batzuk bederen, gauza guztien gainetik daudela, nahiz eta gaur egun askok euskara galdu (horretan isilik), ainitzek ohiko meza ukatu (sekulako tradizioa izan baita) edo denak, eskola mistoetan ikasi (oroitu zer zen Lekarozko Kolegioa), eredu ezberdin ttiki batzuk hartzekotan bederen ohiturak bestearena baino gehio balio ote du? Edo bestela Baztanen zergatik onartu neska eta mutikoen arteko Lapurdiko Mutxikoak (hastapenean gizonenak bakarrik), edo bertako dantza talde batzutan neskek ohiko gizonen dantzak egitea, edo Baztandarren Biltzarrean Xiberoko dantza talde mistoak konbidatzea edo neskek gaur egun bertsoan aritzea? (...) Nik buruan daukat Arraiozen eta Erratzun orain dela 38 urte Maurixiok ez zuen eragozpenik neska bat dantzara ateratzen zenean, eta nola mutil dantzak jotzen segitzen zuen, naturalki, herri horietako patroiairen egunetan. Elizondo bereztasun bat izan behar ote da? Elizondo? Funtsezko tradizioak aspaldi galdu zituen herriak? Santiago Egunak beste herrietako patroia egunak baino gehiago balio ote du? (...) Orduan? Inori ez litzaioke bururatuko orain Mikel Laboa, Lourdes Iriondo edo Benito Lertxundiren kanta zaharren birmoldaketak gaur boikotatzea tradizioaren izenean, lehen aldiz gitarra erabili zutelako, tradizioaren aurkakoa zelako? Eskerrak horretan ari izan zirela eta abesteko tradizioa berritu zutela zahar horiek ahanzpenean eror ez zitezten. Nork ezagutuko luke Arizkuneko Urtsuko balada bestela? Eta beste hainbeste kantu, baina agian Elizondoko aunitzeri berdin litzaielike, aspalditik euskal kantua ahantzirik mejikanadak kantagai hartu dituztelako baina paso... Batzuek esango dute hau guztia ez dela gauza berdina, eta mutil dantzen afera berezia dela, baina sakonki pentsatuz, aipatutako guztiak funtsean berdina dira! Arrazoa ez ote dago matxismo inkontziente edo ez hain inkontziente batean? Baietz uste dut, inori ez diola makurrik egiten neskek mutil dantzak ere dantzatzea, dantzek bizi behar dutelako, gaurko gizartean bizi garelako, neska-mutilak eskolan elkarrekin daudelako, eta mutil dantzak transmititu behar direlako eta zalantzarik gabe, gehienetan horretarako egokienak beti amak izan direlako. Kazkarrerik bazterrerera utzirik, elkarrekin aitzinera joan gaitzen denen Mutil dantza luzarako bizi dadin.

«Inori ez dio makurrik egiten neskek mutil dantzak ere dantzatzea, dantzek bizi behar dutelako»

Aio eta besarkada bat itturri!!

Joseba URKIOLA (Leitza)

Lehen oinatzak emateko ordua da, ttipi-ttapa, istorio berri eta erakargarrien bila. Karrapatzean utzi eta aurrera hasi naiz. Hainbat pauso eman ostean, herrian konponketa lanak egiten ari direla konturatu naiz. Begiradarekin batera zerbait arraroa somatu dut. Obratan egotea ohikoa da gure herrietan, baina gorputzean erraietaraino sartu zaidan hoztasuna ez dit eraikuntza lanak ikustek sortu, begiek ikusi ez dezaketenez zerbait horrek baizik. Ezinak hala behartuta, nire ondotik pasatzera zihoan herritar bati galdetzea otu zait. Zergatik ari ote dira konponketa lanak egiten? Ehiztari batek tiro batean bi uso botatzen dituen bezala, bi erantzun eman dizkit. Trafikoa arintzeko eta batez ere kamioei erraztasuna emateko, errotonda bat jartzea erabaki da. Akabo, ez dago Lopeneko itturrie. Errotondaren esana alde batera utzi, eta azken bost hitz horiekin gertatu naiz. Horixe zen bila nembilen erantzuna. Orduantxe etorri zait argia. Une batean, pertsonak heriotzak bisita egin aurretik izaten omen duen bezala, ehunka une eta oroitzapen etorri zaizkit gogora. Ehun argazki bat-batean ikustea bezalako esperientzia izan da. Onerako edo txarrerako ezin jakin, harri ederrez apaindutako arkuak eta bere azpian zegoen objektu hark zenbat bizipen izan ote zituen. Zenbat argazki *flash* jasan behar ote dituen bere denboran. Zenbat manifestaldi, isilune, errebindikazio, algara, poz eta negar. Segur naiz Incansables txarangaren abesti gehienak buruz zekizkiela. Zenbat etxafuero, entziero, parranda kanta, ezkutuko muxu eta ageriko besarkada. Eta nola ez, Eguberrietan bera denen erdigune. Udaletxeko langileen izerdiak ederki zukatua da. Baita Orantzaroaren esanak aditu, urtarrilaren 4ko txintxarri soinuak entzun eta Ekialde Hurbileko Errege Magoen hainbat musu hartu ere. Jesus haurtxoaren estalpe, leitzarren elkargune. Esaera zaharrak bide guztiek Erromara eramaten zaituztela dio. Leitzarren kasuan, bide eta oinatz gehienak itturri emankorrera zeuden bideratuak. Argi dago garaiak aldatuz doazela. Ezin dugu horren aurka ezer ere egin. Beharrak hala eskatzen du, eta horri erantzun behar. Mundua borobila den bezala, orain zirkunferentzia apain batek hartuko du herri erdia bere. Ez dago atzera bueltarik. Ea denen mesederako den. Ttipi-ttapa aurrera jarraitu besterik ez dugu. Ezin bizi gaitzek beti iraganarekin. Balitz eta balu artifizialarekin. Dena den, herritar bezala, nik ere azken bost hitz esan nahiko nituzke. Agur eta besarkada bat itturri!!!

«Leitzan bide eta oinatz gehienak itturri emankorrera zeuden bideratuak. Argi dago garaiak aldatuz doazela»

Irakurleak mintzo

Ez dugu horrelako Berarik nahi

Oihana SENPER MAZIZOR
BERA

Beratarra bezala lotsagarria iruditzen zait herria itxieraz betetzea (kiroldegia, Altzateko Frontoia...). Horregatik denak kentzea eskatuko nuke eta hori posible ez bada, denak irekitzea (horrela arazorik ez da izanen ireki eta ixteko).

Altzateko Frontoia-
ren kasuan, erabiltzen den aitzakia zikintzen dela da eta inor ez dagoela prest asteburuetan atea ireki eta ixteko. Atea irekia baldin badago, ez du inorrek itxi behar eta zikintzen dutenak (mutiko-neska koxkorrak?) atakatik salto bat egin eta pasatzen dira, haur tikiak ditugunok ezin dugu silleta eta haur tikiakin pasatu.

Kiroldegiaren kasuan, drogak saltzen direla, DBHko mutiko eta neska ez direla patioetik atera behar... erraten da. Adin horrekin arauak ulertzeko eta betetzeko gaitasuna dutela iruditzen zaidanez, itxierak sobran daudela uste dut eta horrela ez bada maixuak hor egon beharko lukete beraien lana egiten.

Aurrekora bueltatuz, kaltetuak betikoak, herriko haurrak, goizetan paseatzera joaten diren amona eta aitonak... Hori gutti bada herriko gaztediari gelditzen zaien aukera bakarra ostatuetara joatea da.

Horrelako herri bat nahi dugu? Nik behintzat ez!!

Nere izenean idatzi duen tipo horri

Luzio IRAZOKI
SUNBILLA

Eskutitza hau idaztean ez dakit nondik hasi kontatzen gertatu zaidana eta espero dut inori ez gertatzea halakorik, zeren inpotentzia haundia sentitzen da eta ez dakizu zer egin. Herriar batek esan zidan aldizkari digital batean Sunbillako Luzio izenean eskutiz bat zegoela idatzita, astakeri batzuk idatziz. Nik sekula ez dut idatzi ez aldizkari digitalera ez aldizkari idatzira, hau da lehen aldia, behartuta, nire burua defendatzeko. Ezer gaixtorik egin gabe, lana bertzerik, 12 ordu egunero, ezagutzen nauenak badaki, astakeria horiek idazteko ez dutela ez denborarik, ez gogorik ez habildaderik ere.

Nire izenean idatzi duen tipo horri, (pertsonea deitzea sobera kategoriatan da), erran nahi diot oso ausarta izan dela hori idaztean nire izenean. Jakin ezazu sakaketa bat jarri dizudala eta egunen batean jakiten badut nor zaren, ea nire aurrean hain ausarta zaren, oso erraza da aurpegia eman gabe Internetez gauzak



Bota bertsoa

Julen ZELAIETA (BERA) • Doinua: Mixiolari baten moduan

Feriaz feria

Postuetatik bueltaxka eman Aziendatara ingura, tartean talo batzuk gosalduta, agurtu hau eta hura, Bertsolarien saioa entzun, bixita bat ostatura garai bateko bizimodua ta beharra zen modura, gaur egun data gorri jantzi ta egun pasa bihurtu da.

Urriko azken ortziralean Elizondon lau-bortz trago, bi aste pasa ta lekukoa Doneztebera igaro, ondotik datoz Lesakakoak, baina hori bai, lehenago hor da Lurraren Eguna ere (aziendarik gabe, klaro) beraz ez dago aitzakirikan nun aukeratu badago!

erratea.

Bukatzeko, aldizkariari erran nahi diet, jendeak eskutitzak bidaltzean kontrol bat egon behar dela, bestela, nere kasuan bezala, min haundia ematen ahal zaio pertsona bati, bere izenean idatzi eta norbaitek erran arte zu ez zera konturatzen.

Eskerrikasko TTIPI-TTAPARI nire burua defendatzeko aukera emateagatik.

ORAIN BAI!! Sunbillako Luzio.

Más x ti Klubaren zuzenketa oharra

EPC Camarena

TTIPI-TTAPAREN 505. aldizkariaren 11. orrian Mas x ti klubaren iragarkia argitaratu zen.

MERKATU TTIKIA

Aldizkaria
+ Internet 8€
+ telebista

T. 948 635 458
www.ttipi.net

Iragarki horretan, abenduaren 14tik aurrera hainbat promozio eta opari iragartzen ziren. Alabaina, Nafarroako Merkatarien Federazioak, CEIN erakundearen, Nafarroako Gobernuaren, Rural Kutxaren eta Nafarroako Kutxaren laguntzaz sortu eta sus-

tatzen duen kanpaina hau 2010eko urtarrilean abiatuko da berez, eta otsailean aurkeztuko ofizialki. Honen inguruko berri zehatzagoak hurrengo aletan argitaratuko dira.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

LANA

BIDASOA PLANA → INBERTSIO BERRIAK

Lerro konbinatua martxan paratzeko lanak abenduan hasiko ditu Arcelorrek

Bi hilabete eta erdiz geldirik egonen da galbanizatua

TTIPI-TTAPA | LESAKA

ArcelorMittal multinazionalak abenduaren 9an, 06:00etan, hasiko ditu Lesakako lantegian egitekoak dituen obrak. Bidasoa Planaren baitan, 35 milioi euroko inbertsioa egin behar du Lesakan eta krisiak hilabete batzuetako atzerapena ekarri badu ere, sindikatuengan itxaropena piztu du azkenean inbertsioa egiten dela jakiteak. Lerro konbinatua deritzona paratuko da Lesakan, pintatu edota galbanizatuzeko gaitasuna duen makineria da, eta merkatuan dagoen puntako teknologia erabiliko omen da.

LANAK ZATIKA

Abenduaren 9an hasiko dira lanaren lehen zatirekin eta iragarri dutenez, otsail akaberako eginak egonen dira. Bi hilabete eta erdi horretan, galbanizatua geldirik egonen da eta LAB, ELA eta UGT sindikatu en arabera, horrek eragina izanen du gainerakoan: «baliteke, galbanizatua geldituta bertzeetan lana zerbait jaitea»,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

2012ko ilbeltzerako Legasako lantegia Nafarroako Gobernuaren esku egoneno da.

adierazi digu LABeko Joxe Mari Lasagak. Bide beretik jo du ELAko Aurelio Gutierrezek ere: «Lesakako lantegiaren produkzioaren %50 baino gehiago galbanizatua erekin lotuta dago». UGTko Patxi Altxuk ere «gehiena galbanizatua inguruan mugitzen dela» aipatu digu, eta beraz, «Lesakako fabrika motelaldia izanen dugu».

«Obraren lehen fase hau otsail hondarrerako nahitaez akitua egon behar duela adierazi digute». Horrela azaldu digu Lasagak. Eta horrekin,

Joxe Mari Lasaga-LAB
«Obraren lehen faseak otsail hondarrerako akitua egon behar duela adierazi digute»

galbanizatua berriz paratuko da martxan.

2012RAKO %100EAN MARTXAN

Baina, lerro konbinatua beranduago sartuko da funtzionamenduan: «Aste Santuko geldialdian sei metroko altuera eman behar diote teilatuari, eta hurrengo kolpean makineria instalatuko da», dio Altxuk. Gaineratu digunez, «2012ko ilbeltzerako Legasako lantegia Nafarroako Gobernuaren esku geldituko dela aurreikusia dago, eta hango langile

Aurelio Gutierrez, ELA
«2011n probak egiten hasiko dira eta 2012rako guztiz produktiboa izanen da»

guztiek Lesakan egon beharko dute ordurako». Gutierrezek, berriz, 2011n probak egiten hasiko direla erran digu, eta 2012rako «guztiz produktiboa» izanen dela.

Langileei dagokienean, inbertsio berri honen, Lesaka eta Legasa artean dagoen 840 laguneko plantila 628ra murriztuko da. Eta Legasako 70 langile Lesakan hasiko dira. Horretarako, bertzeak bertze, ilbeltzaren 1etik aitzinera, 1950, 1951 eta 1952an jaiotakoak erregulazioan egonen dira

Patxi Altxu, UGT
«Eskualdean etorkizun garbiena duen enpresetako bat da Lesakako ArcelorMittal»

60 urtera ailegatu bitartean.

ETORKIZUNA? 'ONA'

LABek «lerro konbinatuarekin etorkizuna ikusten dio lantegiari». Obra hasieran iragarri baino beranduago egin izanak «kezka» eragin ziela ere aitortu digu Lasagak: «Obra hilabete batzuk gibelatu zen eta kezkatu egin ginen. Oztopoak bazirela erran ziguten. Izan ere, lerro konbinatu hau leku aunitzetan egin nahi zuten, eta frantsesak, erraterako, indartsu zeuden han egiteko».

UGTk ere «etorkizun garbia» ikusten dio Lesakako lantegiari. «Eskualdean etorkizun garbiena duen enpresetako bat da», dio Altxuk.

Gutierrezen hitzetan, etorkizun «ona» du. «Horretarako onartu genuen Bidasoa Plana. Plan honen eskualdearen etorkizuna bermatzen du. Bertzela, «ez luke bidegarritasunik» edukiko.

EREGULAZIOA EKAINERA BITARTE LUZATZEKO ARRISKUAN

Uda hasieratik, erregulazioan daude ArcelorMittaleko langileak. Eta badirudi, abenduaren 31n akitzekoa den erregulazioa 2010eko ekainera arte luzatu nahi duela zuzendaritzak.

okana
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jose Luis B. Carr
Tfno/Fax: 948 630 018
Karrilberreri 12 • BERA

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera-Tfno: 948 630 735 - 407 406 781

UDALA → DIRULAGUNTZAK

Kirol eta kultur ekitaldietarako laguntzak banatuko ditu Udalak

Azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 30ean bukatuko da kirol eta kultur ekitaldiak antolatzekeo Udalak banatuko dituen dirulaguntzak eskatzeko epea. Eskaerak Herriko Etxeko bulegoetan aurkeztu beharko dira nahitaez, eta ez dira epez kanpo aurkeztutako eskaerak onartuko.

KIROLETAN BI LAGUNTZA

Kirol eta kultur bi dirulaguntza mota banatuko dira: denboraldi luzea dutenei bideratuak –liga bat dutenak, urte osoan mendi irteerak egiten dituztenak, astero entrenamenduak egiten dituztenak...–, eta egun bateko kirol ekitaldietarako. Lehenbizikoei dirulaguntza osoaren %80a emanen zaio. Dirulaguntza onartu eta egun batzuetara egokitutako kopuruaren %50a jasoko dute, eta urte hondarrean, ebaluazio orria entregatzean gainerakoa.

Egun bateko kirol ekitaldiei dagokienez, laguntza osoaren %20a hartuko dute, eta hauen kasuan, kirol ekitaldia egiten den egunetik hurren-

go 30 egunen barnean justifikatu beharko dira gastuak. Ondotik, ordainduko zaie.

KULTUR EKITALDIAK

Kultur ekitaldien kasuan ere, egiten diren egunetik hurrengo 30

egunetan justifikatu beharko dira gastuak, eta ongi eigna badago, ordainduko zaie.

Santa Zezilia Eguna

Urtero bezala, Santa Zezilia Eguna dela-eta, emanaldia eskainiko du-

te Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako ikasleek. Azaroaren 26an izanen da, 18:00etatik aitzinera musika eskolara. Aurtengoa, gainera, berezia izanen da, 30 urte igaro baitira Musika Eskola sortu zenetik.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Giro ederra XXIII. Lurraren Egunean

Karrikak jendez gainezka bete ziren Lurraren Egunean. Goiza goibel eta euria egiteko itxurarekin hasi zen, baina Gure Txokoako antolatzaileek arriskatu eta postuak Altzate karrikan eta plazan paratzea erabaki zuten. Eta ongi atera zitzairen, euririk ez baitzuen egin. Guzura 72 eskulangileren lanak ikusteko eta erosteko aukera izan zen eta bertze 23 salmenta postuetan elikagaiak paratu zituzten. Hainbat barazki, ondo eta fruitu ere ikus zitezkeen, eskolako erakusketan. Sagardo eta gasna lehiaketek ere ez zuten hutsik egin: 23 botila sagardo eta 11 gasna aurkeztu ziren eta sagardoetan Lesakako Lauen Ametsa baserriko Jose Mari Elgorriaga izan zen garaile –200 euroko saria–. Gasna lehiaketan, bi lehenbiziko sariak Arantzara joan ziren. Lehena, 220 euro, Serorenbordako Margarita Madariagak eskuratu zuen eta bigarrena, 100 euro, Bordalarreko Simonenbordako Loli Mutuberriak. Hirugarren saria, 75 euro, Berako Alkeberreko Isabel Bazterrikarentzat izan zen. Bezperan ere bertze lehiaketa bat jokatu zen, barazkiopilena, eta lau kuadrilen artean, *Orzegunekoak* taldeak irabazi zuen. Bertzalde, Isidoro Fagoaga Musika Eskolakolaren 30. urteurrenaren harira, Lurraren Egunean kalejira berezia egin zuten.

FLASH

Patxi Vila Larungo I. Mendi Bizikleta Igoeran txapeldun

Patxi Vila nagusitu zen Gure Txokoa elkarteak azaroaren 1ean lehen aldiz antolatu duen Larungo Mendi Bizikleta Igoeran. Txirindulari profesionalak 41 minutu eta 15 segundu behar izan zituen Eztegarra pasealekutatik 905 metroko altuera duen Larungo kaxkorako 8,9 kilometroak osatzeko. Ez da ibilbide luzea, baina kontuan hartu behar da banaz bertze %9,5eko malda dagoela eta azken zatian %29ko maldak ere badira. Guztira 45 txirindularik parte hartu zuten.

Jubiloteka astean bi aldiz

Bortzirietako Oinarriko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatu eta 21 gizarte eragilek sinatu duten Bateragarritasun hitzarmenaren barne, hainbat ekitaldi egingen dira Bortzirietan. Horrekin harira, azaroaren 2tik abenduaren 24ra, jubiloteka eskainiko da astelehen eta asteazkenetan Lagun Haundiak elkartearen egoitzan, 10:00etatik 13:00etara. Jubiloteka edo adintuen txoko honetan, mendekotasun maila bajua dutenei, kalitatezko atentzioa eta egokitutako jarduerak eskainiko zaizkie, beraien ahalmen eta gaitasunak jorratuz.

LESAKA

OSPAKIZUNA → EUSKARA BATZORDEAK ANTOLATUA

Lesakan Euskaraz Bai Eguna ospatuko da igandean

Beheko Plaza eta Zarandiako etxeei izenak paratuko zaizkie eta herri bazkaria eginen da

Aitor AROTZENA

Euskaraz solas egin... eta irakurri... eta idatzi... bizi izenburupean Lesakan Euskaraz Bai Eguna antolatu du Euskara Batzordeak, udalaren laguntzarekin. 10:00etan karrikabuelta eginen da txistulariekin eta ordu berean, Alondigan ilar prestatze lehiaketa. 12:00etan, Beheko Plaza eta

Zarandiako etxeei izena paratuko zaie, trikitilarien laguntzarekin. 14:00etan herri bazkaria eginen da menu honekin: ilar gorria, saiheskia (edo xolomoa haurrentzat), gazta eta irasagar-gozokia, edariak, kafea eta kopa. Bazkarirako txartelaren prezioa azaroaren 12a arte (12 euro helduek eta 8 euro haurrek). Egunean berean, 15 eurokoa izanen da helduentzat eta 10ekoa haurrentzat. Kattu, Arrano, okindegia, Koskila eta Atxaspin izanen dira txartelak salgai.

Bazkalondoan, euskal kantu zaharrak izanen dira Eutsi taldearenkin.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eutsi musika taldeak girotuko du bazkalondoa.



ARGAZKIA: TELLETXEA

Mirentxu eta Maria garaile Arkupe elkarteko emakumezkoen paleta goma txapelketan

Urriaren 24ean jokatu zen Arkupe elkarteko emakumezkoen paleta goma txapelketako finala. Mirentxu eta Mariak 30 eta 23 irabazi zieten Dolo eta Maiteiri. Hirugarren posturako lehia, Begoña baztandarrak eta Gurutzeren ordez ari zuen zen Bea Lizardi igantziarrak 30 eta 18 irabazi zieten Aurora lesakarrari eta Estitxu almandoztarrari.

TURISMOA → URTEBETE PASA DA INAUGURATU ZENETIK

1.200 bisitari baino gehiago sartu da komentuko Burdinaren Etxean

Herriko turismo eskaintza nabarmen hobetu du

A.A.

Joan den urteko urriaren 31n ireki zirenetik urtea bete denean, 1.248 bisitari izan dituzte komentuan dauden Turismo Bulegoak eta Burdinaren Etxeak. Joan den urteko azken bi hilabeteetan 259 bisitari izan ziren, aunitz herrikoak, erakusketa eta turismo baliabide berria ikustera sartu zirenak. Aurten, urriaren 31 bitarte 989 bisitari izan

dira, gehienak udako hila-beteetan (193 abuztu-
an eta 144 uztailean), bai-
na apirilean ere 134 bisita-
tari hurbildu ziren, Aste
Santuatartean izaki. Gai-
nerako hilabetei dago-
kienez, ekainean 118 la-
gun sartu ziren, martx-
oan 93, urriaren 88, irail-
ean 71, maiatzean 63, ur-
tarrilean 46 eta otsailean
39. Mattane Rodriguez
Turismo Bulegoko ardu-
radunaren erranetan,
«kanpotarrek Burdinaren
Etxea hagitx ongi balo-
ratu izan dute beti, baita
herria bere ere. Udan kan-
potik etorri diren turista
gehienak katalanak,
valentziarrak eta ma-

drildarrak izan dira. Ber-
tzalde, Euskal Herri-
tik ere etorri dire; Nafarroa, Ara-
ba, Gipuzkoa eta Bizka-
iatik, orden horretan. Urri-
ko zubian, eta udazke-
neko asteburuetan, Ara-
goitik ere etorri dira».

Museora sartzen de-
nak, MP4 bat izaten du
azalpena aditzeko, lau
hizkuntzatan, eta ondo-
tik zerbait gehiago jakite-
ko edo zalantzak argi-
tzeko dago Mattane. Le-
henago abisatuta talde-
ak etortzen badira, Pe-
dro Lanz arotza bera gus-
tura agertzen da azalpe-
nak emateko. Herriko tu-
rismo eskaintza hobetu
duela uste du Mattanek.

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak,
sabal modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

BOZZ-AID
LAVANDEKIA
91 • 71 98 0328 • LESAKA

IRU BIDE
Energia • Asaketa
Barrutia, 31 • Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABAL
JATETXEA
T: 948 637 260 • LESAKA

KULTURA → ETXALARRI BURUZKO BI LIBURU KALEAN

Pello Apezetxearen liburuak herriko dendetan daude salgai

Arrakasta handiz joan dira Kultur Egunak

Joseba eta Nerea

Kontent agertu dira Euskara Batzordeko antolatzaileak aurtengo Kultur Egunek izan duten martxarekin. «Jende aunitzek parte hartu du eta ekitaldiekin asmatu dugu», erran dute. Aurten hiru astez luzatu da kultur-zikloa.

Urri erdialdean haur-errentzako pelikula eta Marimendi emakume taldearen aurkezpena izan ziren eta bietan jende bizkorki elkartu zen. Hurrengo astean txistukontzertu pedagogikoa eskaini zuen Irungo txistulari Bandak eta joan den urteko arrakasta errepikatu zuen. Ekitaldi guztien barrenean, Iruñeko Muthiko Alaiak fanfareak eskaini zuen ikuskitzuna izan zen jendearen

interes gehien piztu zuena. Emanaldi berezia izan zen, musika irudiarekin lotuz, euskal dantzaketa abesti herrikoiak nahastu zituen. Muxikoak, ezpata dantza, *Euskal Herrian Euskaraz eta Baratz bat*, denak elkartu zituzten ordu bat inguru iraun zuen emanaldi goxo eta berezian.

Azkeneko urteetako ohiturari segituz, bertsoafari eta desafioak itxi zituen Kultur Egunak. Lesakako hiru bertsolari, Iñigo Olaetxea *Makuko*, Joxe Juan Zubieta *Etخابe* eta Josu Sanjurjo Irungo bertze hiruren kontra aritu ziren. Estitxu Arozena izan zen gairjartzailea eta bertsolariak

BI LIBURU

***Etxalarko etxeen izenak eta Etxalarren historiako zenbait jakin-garri* dute izena Pello Apezetxearen liburuak.**



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Pello Apezetxeak jendearen arreta bereganatu zuen egin berri dituen liburuen aurkezpenean.

haren ariketa bereziei erantzun behar izan zieten. Bertzeak bertze, jende ezagunen argazkiekin asmakizunetan aritu ziren eta Gran Hermano berezian sartu ziren bertsolari guztiak. Giroak eta umore onak ez zuen hutsik egin. Iruñe eta Itxaso Elizagoien trikitilariak ere parte hartu zuten. Publikoak erabakitakoaren arabera, Irungo bertsolariak izan ziren irabazle.

PELLO APEZETXEAREN BI LIBURUAK

Kultur Egunen barne egindako ekitaldien artean, herriko apezak emandako hitzaldia nabarmendu behar da. 40 lagunetik goiti elkartu ziren Kultur Etxean Pello Apezetxeak argitaratu dituen bi liburuen aurkez-

penean. Hitzaldi interesgarri eta landua eskaini zuen Apezetxeak, irudi eta testuen laguntzaz. Jendearen arreta piztu zuen eta Kultur Etxea tanpetaraino bete zen.

Orain herriko bi dendetan paratu ditu salgai liburuak: *Etxalarko etxeen izenak* eta *Etxalarren historiako zenbait jakin-garri*. Gure herriko ondare kultural eta historikoa- ren altxorrak dira.

Uso-jatea Larraburuan

Aspaldiko ohiturari segituz, 30 lagunetik goiti elkartu ziren urriaren 25ean Larraburuan uso-jatea egiteko. Jose Javier Zubieta elkarteko presidentek erran digunez, «jendeak ilusio eta gogo handiz espera-

tzen du bazkari hau, usasosoiaren barrenean egun berezia izaten baita, aspaldiko urtetan ospatzen duguna». Anttoniotik ekarri zituzten usoa eta berandura arte luzatu zuten besta musean eta partxisean.

Mus eta partxis txapelketak

Azaroaren 8an hasi zuten Larraburuan Mus eta Partxis txapelketa. 18. edizioa izanen da eta hamar bikotek parte hartuko dute musean eta zortzik partxisean. Igan- de goizetan jokatu- ko dituzte mus partidak eta arratsaldean partxisekoak. Abenduaren 27ra arte luzatuko dute txapelketa. Egun horretan eginen dituzte bazkaria eta sari-banaketa.

Kulturkari
Laguntza ekonomikoak
Tartean daude:
Irteerak, inbentak, laguntza,
guztizak, fakturak,
Kontak, egutegiak
Irudi korporatiboak
Eskariak, aurrekontuak, kontabilitateak, gabeak
Mota guztiak: 010 22 22 22 - 010 22 22 22

Lizun
GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gaitza
Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 882

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabularako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ARANTZA

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Kultur Egun
ederrak
pasatu diraXV. Baserritarren
Egunak jende
aunitz bildu du

Nerea ALTZURI

Urriaren 30etik bazen zer egin herrian. Zahar Txokon Marimendi Euskal Herriko emakume mendigoizaleen taldeak emaniko solasaldiaz gain, Ekaitza Elkartearen Julio Soto eta Jon Maiarekin bertso afaria izan zen eta 40tik goiti afaltiar bildu ziren. Gainera, batzuk ezin izan zuten afaltzera joan, txartelik gabe gelditu zirelako. Giro ederrean pasatu zuten afalondoa. Larunbat arratsaldez, frontoia eta eskola gaztetxo eta gurasoez bete ziren. Tor magoak eta Zurrumuru taldeak emanaldi politikak eskaini zituzten.

Igandean, azaroaren 1ean, XV. aldiz Baserritarren Eguna ospatu zen. Goizean goizetik baserri nahiz herrikoak frontoialdera hurbildu ziren pos-

tuak hornitzera. Erakusteta eta salmentarako frontoiko gunea polit zegoen: eskulanak, barazkiak, goxokiak, zerriak, botika naturalak, etxeko tresnak, taloak... 30etik goiti postu paratu ziren. Frontoietan, aziendak ikusi ahal izan ziren.

AHARI LEHIAKETA

Aurten lehen aldiz Ahari Lehiaketa egin zen eta sari nagusia, 60 euro, Eguzkialdeko Larrainekoborda baserrira joan zen; bigarren saria, 30 eurokoa, Bordalarrea auzoko Martinekobordako ahari batek hartu zuen.

GAZTA LEHIAKETA

V. Gazta Lehiaketan, 12 gaztak parte hartu zuten. Serorenbordako Margari Madariagak 60 euroko saria jaso zuen.

Gaztak aurkeztu zituzten gainerako baserriak hauek izan ziren: Otsarra, Eguzkialdea eta Bordalarreako Ximonekborda baserriak, Martixenekoborda, Tuaneko-



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Jende andana hurbildu zen Baserritarren Egunean, eta giro bikaina sortu zen.



ARGAZKIA: XABIER ZUGARRAMURDI

120 kiloko basurdea bota dute lbintzan

Batzuetan egindako esfortzuak merezi du. Horixe pasatu zitzaion urriaren 17an argazkian ageri den kuadrilla honi, basurde hori hil zutenean. Ekaitzako lbintza parajejan hil zuten eta kuadrilla honek Arantzan hil duen basurderik haundiena omen da -120 kilo inguru-. Ageri da bai gustura daudela!

borda, Senberro, Laraburukoborda, Martinekoborda, Albiz eta Aientsa-

ko Gaxtelenekoborda eta Osildekoborda. Ekoizleek emaniko pro-

duktuekin osatutako zarea, berriz, Aiora Iturriak irabazi zuen.

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGEA · JATETXEA

Zalain
JATETXEA · RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t: 948 631 106 w: www.zalain.com

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



BEOLA-ETXEA

/ supermerkatua / bar / jatexea /
/ lurrindenda / moda /

ABENDUAREN
7 tik 31ra
EGUBERRITAKO
ESKAINTZA!

%20

ARROPA - OSAGARRIAK
BISUTERIA

%10

LURRIN KUTXAK

ABENDUAK
5 eta 6

ASTE BURU ZOROA!

%40

ARROPA
GUZTIA

Ibardin gaina, 30
31780 Bera - Nafarroa
Te. (0034) 948 630 709
Fax. (0034) 948 631 051
www.beolaetxea.com

GIZARTEA

ENPLEGU TAILERRA → EMAKUME LANGABEAK IKASTEN

Mendekotasuna duten pertsonen arreta eskaintzeko tailerra martxan da

Eskualdeko 15 emakumek eman dute izena

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bortziriak eta Malerrekan mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako arreta zerbitzua izeneko enplegu-tailerra abian da.

Gure eskualdean egiten den bigarren tailer hau Cederna Garalurelkarrekin sustatu du, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Lesaka, Bera, Baztan eta Doneztebeko udalen finantziarioarekin, eta Europako Gizarte Funtsa-

ren finantziarioarekin. UPD-Inafre erakundeak ere lagundu du.

Gobernuak 154.521 euro paratu ditu Enplegu Zerbitzuaren bitartez eta aipatu udalek 18.000 euro ordaindu dituzte denen artean. Urriaren 28an Lesakan egindako aurkezpenan zuten Lesakan eta Edurne Garro tailerraren zuzendariak «toki-entitateek lan-bazterkeria sufritzeko arriskuan dauden pertsonen kualifikazioa lantzeko ekintza honetan izan duten inplikazioa» nabarmendu zuen. Eskualdean 65 urtetik goitikoak %21 baino gehiago dira. «Ho-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Tailerrean parte hartuko duten emakumeak eta Cederna-Garalur, Lesakako Herriko Etxeko eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko ordezkariak urriaren 28ko aurkezpenan.

ri dela eta, mendekotasuna duten pertsonen zainketaekin lotura duten zerbitzu gehiago eta kalitate handiagoak behar dira zonaldean, batez ere emakumea lan-merkatuan txertatzen ari dela kontuan hartuta, izan ere, historikoki eurek hartu izan dute beren gain pertsona horien zainketa».

Tailerraren zuzendariarekin batera, Juan Fermin Mitxelena Lesa-

kako alkatea, Esther Celaya Cederna-Garalur elkarrearen zuzendari gerentea eta Jose Luis Ruiz Ciruelos Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendari-gerentea izan dira, baita tailerrean ariko diren 15 ikasteko erabiliko dituzten egoitza eta zentroetako ordezkariak ere.

ENPLEGU-TAILERRAK

Enplegu tailerrak enple-

gua sortzen laguntzeko neurriak dira, eta 25 urtez goitiko langabeei zuzendutako dira; emakumeek eta prestakuntza guttiako etorkinek dute lehentasuna, baldin eta tailerrean ematen den espezializazioarekin lotura duen enpleguaren bila dabiltzanak badira.

Joan den urteko tailerrean parte hartu zuten artean, %80ak baino gehiagok lortu zuten lanpostua ikastarora bukatuta.

LAN-MUNDUA

LAB SINDIKATUAREN ESKAERA

Kalitateko zerbitzu sozialak eskatuko ditu LABek Lesaka, Bera eta Elizondon

Hilaren 26an hiru herrietan izanen da

TTIPI-TTAPA

«Denok kalitateko zerbitzu sozialak jasotzeko eskubidearen alde» herriz herri ibilaldia

abiatuko du LAB sindikatuak ortziral honetan, azaroak 13, Tafallan.

Azaroaren 26an ailegatuko da eskualdera. Egun horretan, Lesaka, Bera eta Elizondon izanen da LAB, bertzeak bertze, propaganda banatzen, eta «egungo egoeraren hutsuneak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Nafarroako Alternatiba Sindikala martxan

LAB sindikatuak antolatu duen 'Nafarroako Alternatiba Sindikala martxan' kanpaina gure inguruan ere ibili da. Azaroaren 5ean Malerrekan ibili zen eta gero Doneztebeko Herriko Etxean agerraldia egin zuen eskualdeko egoeraren errepaso bat egin eta bidenabar egoera honetan LABen alternatibaren garrantzia azpimarratzeko. Itzulia Amaiurren akitzekoa zen.

agerian paratu, kalitateko zerbitzu sozial pu-

blikoak eskatu eta egiazko parte-hartze eta

kontrol soziala aldarrikatzeko».

Joseba Indabere Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeko burua da. Batzorde honetan Malerrekako zinegotziak eta euskalgintzako hainbat

ordezkari biltzen dira euskararen alde aritzeko. Esku artean dituzten egitasmoan artean, Euskaraz Bai dinamika dago. Berriki paratu dute martxan, eta

horri eta Malerrekan euskararen alde egiteko dagoen beharraz mintzatu da Indabere. Bide batez, elkarlanerako deia ere luzatu die herritarrei.

Joseba INDABERE | Euskara Batzordeko burua

«Zonalde euskalduna da Malerreka, baina badugu zer hobetua»

MALERREKA

Mankomunitatearen eskutik etorri da, beraz, Malerrekan EUSKARAZ BAI dinamika martxan jartzeko asmoa, zergatik ikusi duzue beharra?

Zonalde euskalduna da izatez Malerreka, baina, euskarari dagokionez badugu zer hobetua. Batzordetik euskararen alde zerbait gehiago egin zitekeela oharatu ginen. Baina lanak atzeratu egin zaizkigu euskara teknikaririk gabe egon garelako urtebetez. Orain berriz martxan da Euskara Zerbitzua eta teknikariaz gain, dinamizatzailea ere hemen da. Lanerako nahiak eta gogoak eraman gaitu Euskaraz Bai dinamikara. Gure inguruko eskualdeetan martxan da proiektu hau (Leitzaldean, Baztanen eta Bortzirietan), eta ahaleginak bere fruituak eman dituela erakutsi digute. Euskararen erabilera bultzatzeko tresna egokia da hortaz, dinamika hau. Eta tresna erratan dugunean horixe da dinamika hau, ibilbide honetan lanabesa bertzerik ez, lana guk egin behar dugulako, denon artean: biztanleek, Herriko Etxeek, erakundeek, saltokiek...

Dena den, dinamika hau ez da hemen bukatzen, ez da bi hilabeteetako kontua, ezta?



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Joseba Indabere, Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeko burua.

Ez, ez da gauza puntuala. Eta hori azpimarratu nahi genuke, hau ez da kanpaina bat, epe luze-ko proiektua baizik. Eta zentzu horretan etorkizun-ean ere jarraipena izatea nahi genuke. Horregatik aipatu dut arestian guztion laguntza eta borondatea gustura hartu-ko ditugula, Euskara Batzordeko ateak irekiak daude edozeinentzat. Gonbitea egin nahi genieke gurekin lanean hasi diren herritarrei (guraso elkarte, irakasle, kultur talde, gazte talde, euskaltegi, jubilatu, kirol elkarte...) hemendik aitzinera ere luzaroan elkarlanean aritzeko euskararen alde»

ELKARLANA

«Gonbitea egin nahi genieke gurekin lanean hasi diren herritarrei (guraso elkarte, irakasle, kultur talde, gazte talde, euskaltegi, jubilatu, kirol elkarte...) hemendik aitzinera ere luzaroan elkarlanean aritzeko euskararen alde»

tegi, jubilatu, kirol elkarte...) hemendik aitzinera ere luzaroan elkarlanean aritzeko euskararen alde.

Zertan sumatuko dugu EUSKARAZ BAI dinamikaren eragina?

Udazken honetan euskararen aldeko giroa pizteko hainbat ekimen eginen ditugu: Euskaraz Bai kartelak jarri karrika eta udaletxetan erraterako. Horiek Euskararen aldeko lehenbiziko urratsak baina honen ondotik bertze fase bat etorriko da, euskararen erabile-

ra sendotzen lagunduko duen fasea. Bere egunerokotasunetik ematen ahal dituzten pausuak ematera gonbidatu nahi ditugu herritarrek, erakundeak, elkarteak edo dendak. Gauza ximpleak eginez hasi gaituzke: eguneroko harremana euskaraz izaten, kartelak, seinaleak edo ohar- rrek euskaraz paratuz, ... egindako ahalegina ongietorria izanen da; euskararen aldeko jarrera eta konpromisoa hartuz normalizaziorako bidea aunitz erraztuko dugulakoa denon artean.

Besta egun bat ere antolatzen ari zarete abendurako, EUSKARAZ BAI eguna, ze ekitaldi izanen dira?

Arratsaldean hasiko da besta. Lehenbizi hurrendako txokoa prestatu dugu, marrazki tailerra eta antzerki emanaldia izanen da eta iluntzerako Euskaraz Bairen aurkezpen ekitaldia. Egun polita izanen da, herritar guztiak gonbidatuta zaudete. Besta eguna ailegatu baino lehen, ordea, izanen dugu elkarrekin lan egiteko aukera. Eta momentu hau probestuz Euskara Batzordearen bilerak gogoratu nahi nituzke: Batzordea hilero biltzen da eta ateak idekiak daude denendako, parte hartu nahi duen guztia ongietorria izanen da. Animatu!

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → LEHEN DANTZARI BESTA

250 lagun bildu ditu dantzarien bestako herri afariak

Dantzari heldu eta gaztetxoek saio ederra eskaini zuten

Jaione OTXANDORENA

Aurreko alean aipatu bezala, urriaren 31n ospatu zen lehen dantzari besta gure herrian. Goizean haurrendako jokoak izan ziren plazan. Gas Naturalekoek jarritako gaztelu puzgarriak, aurpegiko makillajeak eta *Wii* jokoak ere izan zuten herriko neska-mutikoek goiz guztian, baita gosaria ere.

Bertzalde, zortzi-hamar postu ekologiko ere

paratu ziren ikusgai eta hainbat produktu eros- teko aukera ere izan zu- en jendeak.

Arratsaldean 17:00- etan hasi zen frontoian herriko dantzarien saioa. Antolatzaileek dotore as- ki apainduta zuten fron- toia ordurako eta saio polita eskaini ziguten haurrek nahiz helduek. Arratsean, berriz, 21:30ean, 250 lagun inguru bildu ziren herri afarian, horietako aunitz Ulibeltzak Elkarteko bazkideak, joan den ur- tean suertatu zitzaizen Eguberrietako loteriaren dirua probexu bai- tzuten bazkideei afaria ordaintzeko.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Neska gaztean dantza emanaldian.



ARGAZKIA: ALICIA OLAIZOLA

Kalabazala eskasiarik ez dago!

Onddo eta gaztain denboraldia dela ongi dakigu denok, baina oraingoan ez dugu ez onddo ez gaztainen argazkirik ere, Beatriz Manterola Behobia base- rrikoak bere baratzean bildu dituen kalabazen argazkia baizik. Ez dira nolanhikoak!



ARGAZKIA: ESTITXU ARRETXEAA

Arrutenea Pilota Txapelketaren bigarren edizioa

Bigarren urtez ospatu zen azaroaren 1an Arrutenea Pilota Txapelketa. Hasiera batean, arratsaldean jokatzekoa bazen ere, eguraldia zela-eta goizean egitea erabaki zuten antolatzaileek. Buruz buruko lau partida ikusteko aukera izan zuten hurbildakoek eta sari banaketaren ondotik luntxa ere izan zen. Hona hemen egun horretako emaitzak. Oihan Canabal 18-Peio Migelena 12 (biak igantziarrak); Iker Espelosin (Sunbilla) 18- Enaitz Anso (Legasa) 17; Andoni Espelosin (Sunbilla) 18- Iñaki Azpirotz (Irurita) 15; Unai Telletxea (Narbarte) 18- David Albiasu (Narbarte) 10.



TATANKA

ONENA

PREZIORIK

HOBERENEAN

Tatanka zure banatzailea Bortziritan, Salmerita, konponketa eta ordetxo piezak bitxia, 6 - 31700 LESAKA - T. 948 638 299

STIHL

GASOLINA MOTOZERRAK

199€* tik

hantza

* Eskaintza honek 2009ko abenduaren 31 arte balio du

EUSKARA → MALERREKAKO MANKOMUNITATEA

Euskararen normalizazioaren alde 'Euskaraz Bai' dinamika abian

Kontseiluak eta Mankomunitateak hitzarmena sinatu dute

TTIPI-TTAPA

Malerekan ere Euskaraz Bai dinamikarekin lanean hasi dira. Konpromiso hori hartu zuten Kontseiluko idazkari nagusia den Xabier Mendigurenek eta Malerrekako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuko zinegotzia den Joseba Indaberek azaroaren 5ean Herriko Etxean egindako sindura-ekitaldian. Bide hori euskalgintzaren lankidetzan eginen dela azaldu zuten.

Euskararen normalizazioa bizkortzeko herritarren atxikimendua, entitateek urrats eragin korrak ematea eta instituzioen eta euskalgintzako erakundeen arteko elkarlanaren garrantziaz mintzatu zen Mendiguren. Indaberek, bere aldetik, Euskaraz bai dinamika martxan jartzearen arrazoia azaldu zuen: «Mankomunitateko Euskara Batzordetik euskararen alde zerbait gehiago egin zitekeela ohartu ginen eta nahi eta gogo horrek eraman gaitu Euskaraz bai dinamika abian jartzera».



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Joseba Indabere Euskara Batzordekoa eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia.



ARGAZKIA: NOELIA ARIZTIA

Txukun Errekako judokak

Ongi egindako lanak bere fruituak ematen ditu, eta Errekako judoka nesken egunerokoa emaitzetan ikusten da. Orain aurrendenboraldian daude, baina euren indar guztiak erabiliz emaitza onekin hasi dira. Irailean eta urrian entrenamendu eta txapelketetan ibili dira: Irungo San Martzial nazioarteko torneo, Kioshi Kobayashi Kopa Lisboan... Eta urrezko bi domin, zilarrezko berte bi eta bosgarren postu bat eskuratu dituzte. Duela bi asteberu, berriz, Gironan izan ziren Frantzia, Valentzia eta Kataluniako judokekin entrenatzen. Lerro hauek idazterakoan, Errekako kirolaria den eta 52 kiloz beheitiko mailan ari den Nieva Larraia Suediara joatekoa zen. Gainerakoek, Ariane Casal (78 kilo), Noelia Ariztia (63 kilo), Amaia Lopez (63 kilo) eta Sandra Averok (57 kilo), alegia, egunero bezala, entrenatzen segitzen dute Iruñeko zentru espezializatu batean eta agerikoa da merezi duela. Frantzia aldera entrenatzera joateko asmoa dutela adierazi digute.

FLASH

Entrenatzaile titulu ateratzeko 26 lagun apuntatuak

Heldu den denboralditik aitzinera derrigorrezkoa izanen da entrenatzaile guztiak titulu izatea, eta horretarako ikastaro bat egin beharko da. Eta erabaki horrek eragina izanen du Erreka Kirol Elkartean. Horregatik ikastaroa egiteko deialdia luzatu zuen, interesatuak izena eman zezaten. Bada, harrera ona izan du eta 26 pertsonak eman dute izena, denak ere herritarrek edo inguruko herrietakoak. Oraindik ez dago zehaztua ikastaroa non izanen den, baina seguraski Donezteben edo Elizondon eginen da. Hori Nafarroako Federazioan erabakiko dute.

Eguberrietako zozketa

Aitzineko urteetan bezala, Eguberrietako saski ederra osatu dute Erreka Kirol Elkarteko ki-deek. Zozketaren eguna, ordua eta tokia ere zehaztu dituzte dagoeneko: abenduaren 19an eginen da, 13:00 etan Elkartearen egoitzan. Zozketarako boletoak ere salgai paratu dituzte dagoeneko. Denetarik duen saskia izanen da aurtengoa ere: mendi bizikleta, mikro-uhin labea, telebista LTDrekin, zuku-makina, sandwichak egitekoa, turroiak, urdaiazpikoa, ardoa, likoreak... eta berze hainbat gauza izanen ditu.

Eguberrietako saskia elkartearentzat hagitz garrantzitsua izaten da, urte osoan antolatzen dituen ekimenak finantzatzeko diru-iturri nagusienetakoa baita.

A logo for 'Gure Haragia Nuestra Carne' featuring a cow and a sheep in a field, with the text 'Gure Haragia' and 'Nuestra Carne' below it.

An advertisement for 'BELARRA JATETXEA' showing a restaurant interior with tables and chairs, and a plate of food. The text 'BELARRA JATETXEA' is prominent at the top. At the bottom, it says 'Moztea DONEZTEBE 948 451 306 www.belarrajatekx.com'.

ITUREN

IBINTZA KULTUR TALDEA → ZOZKETA

Urtero bezala boletoa paratu ditu salgai Ibintza Kultur Taldeak



PERTSONAIA

Alberto SAN MIGEL

Malerrekako Mankomunitateko presidente izendatu dute

Alberto San Migel Mindegia **Oizko** alkatea da Malerreka Mankomunitateko lehendakari berria. Hala erabaki zuten Malerreka Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako ordezkariak azaroaren 3an egindako bilkuran. Horrela, orain arte Mikel Petirena Iturengo alkate hilberriak zuen kargua betekoa du oiztarrak

Zozketa urtarilaren 5ean egingen da

Arkaitz MINDEGIA

Abenduko Kultur Egunak, Joaldunen Eguna, dantza ikastaroak, Trinitate Eguneko bazkaria, antzerkiak, aurtan maiatzean egindako gaupasa... Auniz dira urte osoan Ibintza Kultur Taldeak antolatzen dituen ekitaldiak. Eta horretarako, noski, sosa behar izaten da. Horri guztiari aitzin egiteko, aurtan ere Ibintza Kultur Taldeak boletoa paratu ditu salgai.

Lehenengo saria zareder batizanen da, bigarrena bainuetxerako bi sarrera eta hirugarrena, bi lagunendako afa-ria Altxunea erretegia.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Abenduko Kultur Egunetan, neska-mutikoentzako ekitaldiren bat beti antolatzen du Ibintza Kultur Taldeak.

Zarea osatzen duten produktuak Ibintza Kultur Taldeak eta herriko denda eta ostatuek eskainiak izaten dira: Herriko Ostaturia, Aurtizko Ostaturia, Altxunea erretegia, Ariztegi harategia, botika, Maritxu ilea-

paindegia eta Eider ilea-paindegia. Lerro hauen bidez, Kultur Taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duten guztiei.

Zozketa, ohi bezala, urtarilaren 5ean, Errege Bezperan, egingen da

Iturengo Ostaturian.

Behin zozketa egingakoan, zenbaki sarituek inguruko komunikabideen bidez jakinaraziko dira: TTIPI-TTAPAN, Xaloea telebistan eta Xorroxin Irratian. Zorte on denei!

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUSTE

Hidroterapia klasak + igerileku minero-medizinala
09:00etatik 13:00etara
gehienez 10 lagun eta gutxienez 7
astero ordu bateko 2 klase
astalehenetik ostiralera, jaiegunak izan ezik
30€ hilabetea

Soinketa + igerileku minero-medizinala
16:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara
Larunbaitetan eta igandetan
35€ hilabetea

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 - www.balnearioelgorriaga.com
%16ko deskontua tratamendu guztietan

KULTURA → UDAZKENEKO BIRA

Folk musikarekin kontzertua izanen da larunbat honetan

Tomania taldeak joko du Herriko Etxeko estapean

Fermin ETXEKOLONEA

Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren barne, folk musika entzuteko aukera izanen da larunbatean, azararak 14. Tomania musika taldea etorriko da eta kontzertua eskainiko du 19:00etan Herriko Etxeko estalpean.

Aerobic ikastaroa

Aurreko alean eskulana ikastaroa hasi zela aipatu genuen. Baina ez da ikasturte honetako ikastaro bakarra izanen, aerobic egiteko aukera ere izanen baita. Herrian bizi den Yolanda izanen da monitorea eta dagoeneko hamar lagunekoa taldea bildu da. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea zen noiz elkartuko diren, baina tokia bai: eskolako beheko solairuan izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskerrik asko denei

Urriaren 20ean lan istripuz hil zen Lino eta horren harira, lerro hauek idatzi nahi izan ditu Izaskun Zubialde emazteak: «Oso une latzak bizitzen ari gara familia eta bera maitatzen genuen guztiak. Lino pertsona zoragarria zen, bihotz oneko pertsona, beti besteei laguntzeko prest egoten zena, bere gauzak egin gabe utziko bazituen ere. Bere bizia ahal zuen guztia ematen pasatu zuen eta hil ondoren ere, halaxe egin du, zuen guztia besteei bizia salbatzeko erabili dute. Momentu hauetan hauxe da familiari gelditzen zaigun kontsuelo bakarra, bere organoak bizirik daudela pertsona askoren barnean eta pertsona horiek Linoren pusketatxo bat bizirik daramatela iruditzen zaigu. Nik pertsonalki aprobetxatu nahi ditut lerro hauek gurekin egondu zareten guztiei eta gurekin egon ezin izan duzuen ere eskerrik beroenak emateko. Nire bihotza hutsik dago, baina zuei guztiei esker pixka bar bete zait. Ezinezkoa zait denei banan-banan eskerrak ematea eta aprobetxatu nahi nuke momentu hau zuen elkartzuna eta maitasuna adierazi diguzuen guztiei eskerrik beroena emateko. Mila esker denei. Gugatik egin duzuen ez zait inoiz ere atzendumo». Goian ageri den argazkia Lino Indakoetxearen heriotza salatzen LABek deituta egin zen elkarretaratzeko da.

LANA

Goiti egin du langabeziak urrian

TTIPI-TTAPA

Irailean zertxobait beheiti egin bazuen ere, urrian berriz ere goiti egin du Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emandako langabeen kopuruak, udako kopurua gaindituz. Zehazki %4,26 igo da langabezia eskualdean, 915 lagunetik 954ra. Doneztebeko INEMen bidez, 313 kontratu egin ziren urrian, eta horietatik 46 bertzerik ez ziren mugagabeak izan. Adina eta sexuari dagokionez, modu ezberdinean somatu da langabeziaren igoera, baina adin-tarte guztietan igo egin da. 25 urtez goitiko gizasemeetan 413tik 421era igo da, adin horretako emakumeen artean, berriz, 388tik 400era. 25 urtez beheitiko gizasemeetan 70etik 85era egin du goiti langabe kopuruak eta emakumeetan, 43tik 48ra. Lan arlotan, zerbitzuen arloak dauka, diferentziarekin, langabe gehien, eta urrian goiti egin du. Irail hondarrean 486 langabe zeuden arlo horretan eta urrian 507. Industrian, aldiz, bortz lagun guttiago daude langabezia, 246. Eraikuntzan, 14 lagun gehiago, 135; nekazaritzan bortz lagunetan goiti egin du langabezia, eta 21 dira. Aitzinetik lanik topatu ez dutenen artean, 4 lagunetan goiti egin du langabe kopuruak eta 45 ziren urri hondarrean.

LEURTZA ABENTURA



Puzgariak festetarako
Segway - BTT
LASER paintball
Despedidak
Eskolarrak

tel. 948 59 20 97
mug. 620 37 96 42
www.leurtza.com





ttipi-ttapa

- Paperezko edizioa
- Hemeroteka
- Eguneko berriak
- Agenda
- Merkatu ttikia
- Eguraldia
- Urtebetetzeak...

www.ttipi.net

EZKURRA

DIRU BILKETA → 'ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI'

Gutxi falta da erloju elektronikoa jartzeko behar den dirua lortzeko

2010 hasieran paratuko da Elizako dorrean

Fernando ETXEBERRIA

Bide onetik doa Elizako dorrean erloju elektronikoa paratzeko abian den bilketa. Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoan sartua dago proiektua eta dagoeneko 170-180 lagunek aukeratu dute. Horri esker, %90a lortu da. Oraindik abendura bitarte dago aukeratzeko modua, eta horrela segituz, %100 eskuratuko da.

Gauregungo erlojuaren egoera penagarria da, esfera hautsita dago eta orratzak kendu behar izan dira. Astero Jose Ferminek egiten duen lan txukunari esker erloju ez aurreratzea eta normaltasunez jotzea lortu da. Hurrengo urte hasieran paratuko da erloju berria, eta 7.950 euro behar dira horretarako.

Euskaraz Bai

Malerrekan euskara indartzeko helburuarekin lanean ari dira Mankomunitatea eta udalak. Hala, urriaren 29an udal

ordezkariak, entitate pribatuetako ordezkariak, Mankomunitateko euskara teknikariak eta Kontseiluko arduradunek bilkura egin zuten, Malerrekan ere Euskaraz Bai ekimena lantzeko.

Ezcurraren kasuan, herritarrek egunerokoan euskara erabiltzea lortu nahi da, eta Udalak ere, bere bilkura eta dokumentaziotan ere euskaraz egitea. Enpresa pribatuetan ere bultzatu nahi da euskara.

Onddoak eta usoak

Urte hau ere diferentia izan da: ondozaleak gustura, bakarren batek 100 kilo ondo baino gehiago ere bildu dituelako. Baina bestetik, ehiztariak haserre, uso gutxi pasatzen ari direlako. Birigarroena hobe izan omen da.

Egur loteak

Urtero bezala, banatu dira aurten ere egur loteak. Horrelakoetan gertatzen denez, batzuei toki onean egokitu zaizkie, eta besteei ez hain onean. Baina gutxienez, urte honetako egurra kalitate onekoa dela diote.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Pilota desafioa ehiztarien artean

Bazkari baten bueltan bildu ziren urriaren 30ean Eratsun eta Ezkurrako ehiztariak Barranka hostalean. Ongi bazkalduta zuten, eta trago bat edo beste hartuta, palaz aritzera ere animatu ziren ehiza denboraldi txarraz ahazteko. Argazkian ageri den bezala, agur errituala ere egin zuten pilotariak, baina ez zuten partida akizterik izan. Publikoan, bestalde, pilotari ezagunak ere ikusi ziren.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Oztopoak errepidean

Bazen garaia! Azkenean herria gurutzatzen duen errepidean abiadura murrizteko oztopoa jarri dute, udaletxearen eta autobus geltokiaren parean, hain zuzen. Oztopo bakarra paratu da, eta askoren ustetan ez da nahikoa. Dena den, Udalak adierazi digunez, ezin izanen da besterik jarri, legeak hala agintzen duelako.

PROIEKTU ZENBAKI: 15.996
TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
 ZURE LAGUNTZA BEHAR DU
 EGINZAZU TTIPI-TTAPAREN ALDE

gure bezeroak
 auzaitzako
 proiektuak **can**

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari

Ekia ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektuak aukeratu izaneren frogapena. Nafarroako Kulturari zure laguntza emateko erabiliko da. TTIPI-TTAPA 2009/11/12/13a bitarteko urtean.

TURISMOA → LEURTZAKO URTEGIAK

35.000 lagunek bisitatu dute Leurtza 2009ko urria bitarte

Joan den urtean baino 5.000 bisitari gehiago etorri dira

Joseba URROTZ

Bisitari aunitz ibili da aurten ere Leurtza aldean: urria bitarte 35.000 lagun. Bertako Laguntzaile Teknikoa den Mikel Albisuren ustez, datu hauek «arras positiboak» dira, bi arrazoi nagusi daude horren atzean: alde batetik, bisitarien kopurua goitu dela, iaz baino 5.000 gehiago etorri baitira eta horrela inoiz izan den kopururik haundiena lortu da. Gainera, 2008an baino 13 egun guttiagotan hartu dira datuak.

Eta bertzetik, igoera hori urtean zehar banatu dela. Izan ere, udaberri eta udazkenean ere kopuru haundiak izan dira (15.000 lagun). Hau ulertzeko, udaberriko eguraldi onak eta udazken honetako ondoko sasoi aparta kon-

tuan hartu behar direla dio Albisuk.

Halere, dudarik gabe, uztailea eta abuztua dira jende gehien erakartzen dituzten hilabeteak. Uztailean, adibidez, 7.163 lagun izan ziren Leurtzan, eta abuztuan, berriz, 9.251.

Bataz bertze, egunean 145 lagun pasatu direla kalkulatu du Albisuk, 2008an baino 25 gehiago eguneko –2007an 158 bisitari izan ziren eguneko eta 2006an 162).

ETEKINIK ATERA DAITEKE?

Edozein modutan, jende kopuru hori dena Urrozko herriaren erditik pasatzen da, eta bada horri etekinen bat nola atera pentsatzen hasi beharko dela dionik ere. Gainera, bertze inguruetan onddo biltzea arautu dutenez, kezka sortzen ahal da ea horrek honat jende gehiago ekariko ote duen, inguruan izan dezakeen eraginarekin: azientak, hesiak...



ATXIBOKO ARGAZKIA

Milaka-eta milaka turista etortzen dira Leurtzara egun pasa egitera. Ondoko taulan, 2003an, 2005ean, 2007an eta 2009an sasoi bakoitzean izan diren bisitari kopuruaren datuak ageri dira. Mikel Albisuk utzitakoak dira.

BISITARIEN DATUAK

SASOIA	2003	2005	2007	2009
Maiatz.-Ekai.	3.339	6.560	4.627	6.043
Uztaila	4.142	6.171	6.995	7.163
Abuztua	7.441	5.836	9.193	9.251
Iraila-urria	-	-	-	6.375
Gainerakoa (1)	2.829	5.872	10.948	2.911
GUZTIRA (2)	17.751	24.439	31.763	31.793
ESTIMAZIOA (3)	20.000	30.000	35.000	35.000

(1) Gainerakoa: martxoa, apirila (Aste Santua barne) eta iraila-urria asteburuetan. 2006az geroztik iraila-urriko datuak egunero hartzen dira eta 2009az geroztik bi hilabete hauek aparte zenbatzen dira.

(2) Guztira: zaintza egin den egunetako datuak.

(3) Estimatuak: urte osoko estimazioa.

b
behetik

Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888

www.behetik.com

Eskallerrak igotzea... ez da oztopo!



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

GOIZUETA

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Azaroa: mota guztietako ekitaldiz gainezka

Feria
Egunerako
bazkarirako
txartelak salgai

Esteban AROTZENA

Azken urteotan udazkenean, azaroan, loratzen da kultura gu-rean, Udala eta Kultur Taldearen elkarlanari esker. Aurten, gainera, hilabete honen edertasuna areagotuko duten beste mota batzuetako hainbat ekitaldi antolatu dira, Umore Onaren festa eta herri kiroltako Euskal Herriko bi txapelketa, esate baterako.

KULTURA

Urriaren 30ean hasi eta lehengo igandera arte Labaderoan ikusgai egon zen arte erakusketak herritar askoren bisita jaso zuen. Kuko, Tinko eta Bolenwaidarren emanaldiak, berriz, ikuslez bete zuten Ganbara lehengo larunbatean.

Hilaren azken aste-bururako ere badaude iragarrita kultur ekitaldiak (27an, ostirala, Xalto Eguna eginen da eskolan eta 28an, Nafarroako Bertsolari Gazteen Arteko Xalto Saria), baina hauen berriz hurrengo alean em-



ARGAZKIA: ELI APEZETXEA

Gutxi bezalakoak

Ontto hau baino zorton lodiagokoak eta zapel haundiagokoak udazkeneko asko agertzen dira TTIPI-TTAPAN, baina berexiagokoak seguruaski sekula ez. Aurkikuntza eta argazkia Eli Apezetxearenak dira.

nen dugu luze eta zabal.

UMORE ONA ELKARTEAREN EGUNA

Garai batean ohitura zena berreskuratuz, bere atal ezberdinen eguna antolatu du Umore Ona elkarteak hurrengo larunbaterako, hilak 21.

Pilota partidak, due-la 15 urteko eta gaur egungo ekipoen arteko futbito partida, eta dantza taldearen emanaldia izanen dira arratsaldean zehar beheko frontoian. Aipatu ga-

beko atalak, koruak, alegia, elkartean eskainiko du bere emanalditxoak. Hantxe afalduko dute guztiek, hain zuzen, Umore Onaren atalen egunari bukaera emanez horrela.

HERRI KIROLAK

Biharamunean, hilaren 22an, Euskal Herriko bi txapelketen finalak jokatuko dira herrian: hirugarren mailako aizkolariena alde batetik, eta txinga-eramaileena bestetik (emakumezkoak). Goino frontoian burutuko

da jaialdia 12:30ean hasita.

FERIA EGUNEN BAZKARIA


Feria Egunaz, azaroaren 28a, hurrengo alean idatziko dugu, baina orduko herri bazkariari buruzko berriak ailegatu zaizkigu dagoeneko. Sakramentuz ongi hornitutako baberna gorriak eta frontoi atarian bertan erretako zokorrak osatuko dute menua. Txartelak salgai daude Amaiarenean (948 514242).

BERTSOLARITZA

Finalaurrekoetan sartu da Txapelketa Nagusia

TTIPI-TTAPA

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2009 finalaurrekoetan sartu da dagoeneko. Finalaurrekoetatik 17k egin zuten aitzinera. Eta orain, finalaurrekoek 17 horiekin eta 2005eko zortzi finalistetatik zazpirekin segitzen dute. Finalaurrekoetan bi itzuli eginen dira, eta zazpi saio guztira. Lehena Bergaran jokatu zen azaroaren 7an, bigarrena Gasteizen azaroaren 8an. Larunbat honetan, azaroak 14, Tolosan jokatuko da (Usabal kiroldegian, 17:30ean) eta igandean Hendaian (Belztzenia pilotalekuan, 17:30ean). Azaroaren 21ean Gernikan eginen da emanaldia (ai-Alai pilotalekuan, 17:30ean), eta hilaren 22an Iruñean (Anaitasuna kiroldegian, 17:30ean). Azken finalaurrekoa Donostian izanen da, azaroaren 29an (Antonio Elortza Belodromoan, 17:30ean). Finala, iragarri bezala, abenduaren 13an jokatuko da BECen. Informazio gehiagorako www.txapelketa-nagusia.eu web orri-an.



Mendukilo
Leze turistikoa ▲ Cueva turística
ASTIZ (Nafarroa) 948 396 095

BIDALI ttipi saskia
5767

ARESO



PERTSONAIA
Anartz OLANO

Beste txapel bat irabazi du

Anartz Olano pelotari gazteak Gartzarongo txapelketa irabazi berri du Xabi Tolosarekin. Aurkariak Untxalo eta Gonzalez zituzten eta 18-11 bukatu zen partida. Txapelketaren 25. urteurrena zen eta aipatu behar da jokalarionen saria ere herritarrek jaso zuela. Bestalde, Errotxapeako txapelketako finala ere jokatu zuen azaroaren 6an Ibai Gil leitzarara lagun zuela, baina lerro hauek idazterakoan ez genuen emaitzaren berririk. Lizarrako lau t'erdiko txapelketa ere laster hasiko du. Zorte on!

IKASTURTE BERRIA → IKASTAROAK

Dantza ikastaroak hasi dituzte 3-9 urteko neska-mutikoei

Horrez gain, helduentzako aerobic klaseak hasi dira

Juana Mari SAIZAR

Dantza ikastaroak hasi dira, eta guztientzako aukera dago, haur zein helduentzako. Alde batetik, helduentzako aerobic ikastaroa abian da. Astelehenetan ordubeteko saioa egiten dute. Eta beste aldetik, haurren dantza ikastaroak ere egiten dira, asteazkenetan arratsaldean. Hiru urtetik bederatzi urte bitarteko haurrak dira eta Alaitz eta Uxue dira arduradunak.

Kultur ekitaldiak

Euskara Zerbitzuak hainbat ekitaldi antolatu ditu abendurako. Xehetasunak 55. orrialdean.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Gaztetxoaren heziketa hizpide

Nafarroako Kirola eta Gaztedia Institutuak gurasoentzako hitzaldia egin zen azaroaren 2an Herriko Etxean. Hainbat gai landu zituzten, hala nola, bideojokoak, sakeleko telefonoak eta telebista eta ordenagailuaren erabilpenaren onurak eta kalteak. Zein arau jarri, nola kontrolatu, arriskuak ikusi eta heziketa arduratsu bat egin ahal izateko jarraibideak erakutsi zitzaizkien han bildutakoei.

Gaztain-jatea

Eskolako neska-mutikoei gaztain-jatea

egin zuten Pake Toki elkartearen joan den ostiral arratsaldean, azaro-

ak 6. Beraiek bildutako gaztainerkin antolatu zuten.

ARANO

20 emakumek afaria egin dute San Roke elkartearen

Maria Jesus eta Lurdes izan dira musean txapeldun

Kontxi KLABER

Herriko 20 emakume elkartu ziren afal-

tzeko San Roke elkartearen urriaren 24ko gauean. Estherrek prestatutako afari goxoaren ostean, musean jokatzeko ohitura jarraituz hasi ziren hainbat bikote. Beste batzuk, aldiz, seietan eta eskoban aritu ziren.

MUS TXAPELKETA

Museko txapelduinak Maria Jesus eta Lurdes izan ziren, eta bigarrenak Inaxi eta Josune gelditu ziren. Ordubete irabazi zioten gauari lasai ibiltzeko eta bai ederki aprobetxatu ere.



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Afaldu eta berehala, kartak hartu zituzten emakumeek eskuan.

LEITZA

UDALA → AUZITEGIAN

Alegazioak jarri ditu Udalak Nafarroako Lurralde Planen aurka

Uharte-Arakil
eta Larraunekin
batara

Asier IMAZ/TTIPI-TTAPA

Udalak, Larraun eta Uharte Arakilgo Udalekin batara, Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolaketa Planen aurkako alegazioak jarri ditu. Alegazio horiek Nafarroarako UPNren Gobernuak dituen estrategien aurkakoak dira.

Xabier Zabalo eta beste bi herrietako alkateen ustez, Miguel Sanz eta bere Gobernuak egiten duen politika «oso zaila da lotzen» Lurraldearen Antolaketa Planean. Gaineratu duteenez, proiektu horiek «lurraldearekiko ikuspegi harrapatzaile, espekulatzaila, sostengaezin eta soziala ez dena tapatu egiten dute». Hala, «lurraldea eta beraien jendea, kapitalaren beharretara» jartzen dituzte. Orain, alegazioen erantzunaren zain egon behar dute.

Film berriak

Asteburu honetan eta

hurrengoetan segida izanen dute film emanaldiek. Ostiral eta igande honetan, Michael Mannen *Enemigos públicos* ikusteko aukera izanen da. Azaroaren 20an eta 22an, Giani di Gregorioren *Vacaciones de ferragosto*. Eta hilabeteko azken ostiral eta igandean, Arnaud Desplechin-en *Un cuento de Navidad* filma. Ostiraleko emanaldiak 22:30ean izanen dira eta igandekoak 19:30ean.

'Ate joka' antzezlan ezaguna

Txalo produkzioen eskutik, Sara Kortazar, Joseba Usabiaga eta Iker Galarza aktore ezagunek prestatutako *Ate joka* lana ikusteko aukera izanen da azaroaren 21ean, 22:00etan zinemaren. ALKE Kultur Taldeak antolatuta du. Bi lagun elkarbizitza kontatzen du antzerkiak: Joxemai, dibortziatua, orain arte bakarrik bizi izana; bizio guztien zalea. Eta Andrex, ezkondua eta dibortziatzeokotan; maniatikoa, garbizalea...



ARGAZKIAK: SAGRARIO LASARTE

Oialde Txokoren denboraldi berria

Azaroaren 1ean abiatu zen Oialde Txokoren denboraldi berria. Ekimen hau ez da berria, eta 12 urtetik 16ra bitarteko gaztetxoei elkartzeko toki bat eskaini eta euren adinerako egokiak diren ekintzak bultzatzeko helburuarekin sortu zen. Eta badirudi, aurreko aldietako arrakasta izanen duela aurten ere, lehen egunean 40 gaztetxo bildu baitziren. Ikasturtea bukatu arte ostiraletik igandera elkartuko dira: ostiraletan, 18:30etik 20:00etara 15-16 urtekoak; larunbatetan, 16:30etik 18:30era 12-14 urtekoak eta 18:30etik 20:30era 15-16 urtekoak; igandetan, azkenik, 16:30etik 19:30era 12-14 urtekoak bilduko dira. Guraso talde baten ardura-ean funtzionatzen du eta beraz, adin horietako gazteen guraso guztiei dei berezia egin zaie boluntarioak behar direlako txandak egiteko. Lokalean, berriz, gazteak hiru monitorerekin egoten dira. Argazkiak ikasturte honetako lehenbiziko egunekoak dira. *Ping-pong*ean, futbolinean, mahai jokoetan eta abar ibili ziren, ondotik, guztiei txokolata eman zitzairen.



ARGAZKIAK: FERNANDO OIARTZUN

II. Mikologialdi arrakastatsua

Gustura gelditu dira antolatzaileak Mikologialdiak izandako arrakastarekin. Bigarren urtez egin da aurten, urriaren 19tik 25era, eta elkarlanean ederki atera zen dena. Eskolakoek marrazkiak egin zituzten gero plazako erakusketan ikusgai jarri eta lehiaketa egiteko. Horrez gain, onddo eta ziza bila ere ibili ziren mendian. Gainerakoek, berriz, onddo eta zizak bildu eta erakusketa hornitu bat egin zuten. Banan-bana sailkatu eta denetarik ikusi ahal izan zen, horien artean, argazkian ageri den *Phallus Impudicus* edo etsai zakila deiturikoa.

gaztelu sol
Iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

LEITZALDEKO EUSKARA ZERBITZUA → EKITALDIK ARANO, ARESO, GOIZUETA ETA LEITZAN

Urtea bukatu arte hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu Euskara Zerbitzuak

Tailerrak, antzerkiak eta filmak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Hilabete hasieratik, hainbat ekitaldi egiten ari dira Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan, lau herrietako Euskara Zerbitzuak antolatuta, eta urtea bukatu arte beste hainbat izanen dira.

Ekimen multzo honi hasiera eman ziona, **Areson** egindako ilustrazio tailerra izan zen. Etxepare Saria dela-eta, euskarazko alburu ilustratuen inguruan egiten ari den sustapen-lanaren barne, ilustrazio tailerra egin zen hilaren 5ean eskolan. Azaroaren 7an, berriz,



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Goizuetan, Xalto Egunaren barne, ekitaldiak izaten dira urtero.

txotxongilo emanaldia egitekoa zen **Aranon**. Bihar Txotxongiloak taldea *Ipuin magikoak* ikuskizuna eskaintzekoaren San Roke elkartearen.

ZINEMA EUSKARAZ
Erdarazko zinemaren

uholdeari neurri txiki batean aurre egiteko, Euskarabidearekin elkarlanean *Zinema, euskaraz ere bai* zikloaren barruan, hiru pelikula ekarriko ditu Euskara Zerbitzuak:

Hala, **Goizuetan** *Perez Sagutxo* 2 pelikula

ikusgai egonen da azaroaren 14an, 18:00etan Herriko Etxean.

Leitzan, *Olentzero eta oparien ordua* filma ikusteko aukera izanen da abenduaren 20an, 17:00etan Zineman.

Areson ere *Perez Sagutxo* 2 filma eskaini-

ko da abenduaren 8an, 17:00etan eskolan.

KULTUR ELEJIRA

UEMArekin elkarlanean, bestalde, Kultur Elejira zirkuitoa ailegatu da eskualdera, euskarazko produkzioa bultzatzeko eta herri euskaldunetako bizitasuna indartzeko. Hona-koak eginen dira:

Areson, abenduaren 3an, Kiki eta Kokoren ikuskizuna izanen da, 17:00etan plazan edo eskolan.

Goizuetan, berriz, Trikuharri antzerki taldea ariko da azaroaren 27an eskolan. Xalto Egunaren barruan, eta eskola orduetan.

Leitzan ere beste emanaldi bat izanen da, baina lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabe zegoen.

edredoi fundak
albormozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi-azal nordikoak
eta edredoietan espezilistak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

BATZAR NAGUSIAK → ORDENANTZA BERRIAK

Ordenantza berrien zirriborroa onartu du Batzar Nagusiak

Hiru hilabeteko epea egonen da alegazioak aurkezteko

TTIPI-TTAPA

Urtebeteko lanaren ondotik, Batzar Nagusiak onartu du Ordenantza, Zerga eta Parlamentu berrien aurreproiektua. Ezohiko bilkura egin zuen urriaren 28an eta bildutako gehienen aldeko botokoe-kin atera zen aitzinera. Abstentzio bakarra izan zen tartean, Xabi Torres Elizondoko alkatearena. Prozesuan herritarrek ez dutela parte-hartu erranez arrazoitu zu-

BOTAZIOA

Urriaren 28ko bilkuran, Elizondoko alkatea izan ezik, gainerakoak zirriborroaren alde agertu ziren. Elizondoko abstenitu egin zen prozesuan herritarren parte-hartzea eskasa izan dela erranez.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Batzar Nagusiak urriaren 28an egin zuen bilkura.

en bere abstentzioa.

Hasierako onarpenaren ondotik, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da txostena, eta orain, herritar, elkarre, erakunde edo instituzioek hiru hilabeteko epea dute alegazioak aurkezteko. Epea akintutakoan, alegazioak baldin badaude, horiek kontuan hartuz behar diren aldaketak eginen dira, eta botazioa eginen da gero. Alegaziorik ez badago, berriz,

dokumentua behin betikoz onartua geldituko da.

ASPALDIKO ARAUDIA

Erdi Aroz geroztik daude funtzionamenduan ordenantzak, eta gaur egun indarrean daudenak 1967koak dira. Duela zenbait urte, ordea, Batzar Nagusiaren ordenantzak eguneratzearen beharra nabarmendu zen. Eta horren bidetik, duela urtebete lantaldea sortu zu-

ten Batzar Nagusiko eta Udaleko kideekin eta adituekin.

Azken urte honetan bilerak eginez ibili dira, eta egin duten txostena joan den urriaren 28an aurkeztu zuten, eta gehiengo osoz onartua izan zen. Bertzeak bertze, helburu hauekin egin dute zirriborroa: gizaritearen gaur egun beharretara egokitzeko, Batzar Nagusia indartzeko eta honen esku-menak finkatzeko.

FLASH

Institutuko en zozketa

Ikasbidaiko gastuei aitzin egiteko, Lekarozko Institutuko ikasleek boletokak salgai paratu eta zozketa egin dute aurturaren 1. Elizondoko ferietan egin zuten, baina janariz betetako saskiaren zenbaki saritua- ren jabea oraindik ez da agertu. 1.255 da zenbakia eta zozketa egin zenetik 15 eguneko epea izanen du ikasleekin harremanetan jartzeko. Bertzela, 911 zenbakiarentzat izanen da saria. Tonbola bat ere egin zuten eta hamar sariak honela banatu zituzten. 1. saria (Saskaitz hotelean bi lagunendako asteburua) Arantxa Zelaiarentzat; 2. saria (Antxitonea trinketea afaria bi lagunendako) Ane Ballarenarentzat; 3. saria (Sobrino ostatuan bi lagunendako afaria) Amaia Elizagoienarentzat; 4. saria (Eguzkialde ostatuan bi lagunendako afaria) Isabel Lauragarenarentzat; 5. saria (Goizalde ostatuan bi lagunendako afaria) Ana Dozagarenarentzat; 6. saria (Eskisaroi jatetxean bi lagunendako afaria) Oihana Retegirenarentzat; 7. saria (Jaimerena ileapaindegian ile mozketa) Maite Etxeberriarentzat; 8. saria (Jaione Estilistan ile mozketa) Kristina Urta- sunentzat; 9. saria (M^a Jesus ileapaindegian ile mozketa) Irune Primen- tzat; eta 10. saria (Adarra Jo musika-dendan hilabete bat dohainik) Pilartxo Elizagoienarentzat. Sari hauek biltzeko, bi zebaki hauetako batera deitu behar da: 638 333175 edo 686 330629. Jasotzeko azken eguna azaroaren 16a izanen da.



UDALA → HIRIGINTZA

Hainbat obra egiteko 1,2 milioi euroko kreditua eskatuko du Udalak

15 herrietako tokien izenak eguneratuko dira

TTIPI-TTAPA

Urtea akitu bitartean eginen diren hainbat obra finantzatzeko 1,2 euroko kreditua eskatuko du Udalak. Horrela onartu zuten NaBaik eta UPNk ahobatez azaroaren 2an egindako bilkuran. Kreditu hau eskatuta, zorpetze-maila %15,76koa izanen da eta gehienez onartutakoa %22koa da.

Eginen diren lanen artean, bertzeak bertze, Baztango 15 herrietako karrika, bide eta toki publikoen izenak eguneratzea izanen da. Izendapena eguneratu zen azken aldia orain dela 26 urte izan zen. Lan honetarako herrietako alkateen, herritarren eta Tracasa (Katastroko Lanak) erakundearen laguntza ezinbertzekoa izanen da.

Gurutze Gorriaren jardunaldiak Lekarozen

Duela bi asteburu, Elizondo, Iurrita eta inguruko herrietan, Gurutze Gorriko auto eta kamioneten presentzia deigarria izan zen. Gure esku-

aldean, ez gaude Gurutze Gorriko baliabideak ikustera ohituak eta zerbait bazela pentsatzekoa zen. Eta hala izan zen. Izan ere, Lekarozko aterpean, entitate honek hirugarren formakuntza jardunaldiak egin zituen, larrialdietako taldeei eta bere gainerako langile guztiei zuzenduak.

Unai Elorriagarekin solasaldia

Londres kartoizkoa da bere azken eleberriaren inguruan solasaldia eskainiko du Unai Elorriaga idazleak, azaroaren 19an, ortzeguna. Elizondoko Gaztetxean izanen da, 20:00etan.

Barricada taldea institutuan

Barricada taldea Lekarozko institutuan izan da *La tierra está sorda* bere hondarreko lana aurkezten. Institutuetaiko DBHko 2. mailako gela aurkezten ari da eta horien artean, Lekarozkoa ere bisitatu du. Lan honetan, Gerra Zibilak errepublikarren aldean utzi zituen historiak, bortxaketak... landu dituzte, sufrimenduari eman diote hitza. CDa liburu batekin osatua dago eta honetan azken hiru urteetan bildutako testigantzak irakur daitezke.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Kirikoketa bestaren hamargarren edizioa

Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatuta, giro ederrean joan zen urriaren 24an Arizkun egin zen Kirikoketa Besta. Ekitaldi andana antolatuak zituzten hamargarren edizioa ospatzeko eta giro ederrean joan ziren.

Eskisaroi
Jaima Urrutia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

SOULE
hileta artea
Tfn: 948 452 444
Mtl: 923 404 583
ARIZKUN

Alai oinetakoak

art, CAMPER, bilow, GEAR, Pepe Jeans, GEOX

Santiago, 47 - Elizondo - tel. 948 452 457

BAZTAN

HEZKUNTZA → AZPIEGITURAK

Iruritak eskola berriaren behar larria du

Guraso Elkarteak arazoa herritarrengana zabaldu nahi du

Maite OTEIZA

Eskolarekin arazo larria izanen du Iruritak heldu den ikasturtean. Azken zazpi urteotan, eskola berria eskatzen ari dira gurasoak, baina kontuari ez zaio atarabiderik eman. Arazoa bere puntu gorenera ailegatzen ari da hurrengo ikasturteari begira.

Azken bi urte hauetan, eskolako Guraso Elkartearen bidez egin diren diligenzia eta saiakera guztiek ez dute erantzun onena hartu. Nafarroako Gobernutik eman den irtenbidea gelak erdibitzea izan da, baina neurritz ttikiegiak gelditu dira. Izan ere, orain dela hamar urte 30 ikasle sartzen ziren tokian, orain 60 baino gehiagok sartu behar dute.

Arazoa behin betikoz akitu dadin, lanean segitzen dute Guraso Elkarteak. Lantaldeak osatu dituzte, eta bertzeak bertze, hurbiltzen

ari den arazoa herritarrei ezagutuz ematea da helburua. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Batzordera joateko asmoa ere badute, espazio arazo honi behin betikoz soluzioa emateko. Gaiari segida egingen diogu TTI-PI-TTAPAN.

Amaiurko Gazteluari buruzko liburuaren aurkezpena

Amaiurko Gazteluaren inguruan Iñaki Sagradok idatzi duen liburuaren aurkezpena egingen da azaroaren 20an, ortziralara, 19:30ean Arizkunenea Kultur Etxean. *El Castillo de Amaiur a través de la historia de Navarra* da liburuaren izenburua eta Pamiela argitaletxearekin kalera-tua da. Ez da Amaiurko Gazteluari buruz idatzi den lehenbiziko liburua, baina liburu honek hainbat berrikuntza omen ditu. Idazlearen arabera, «bataila famatuaren ondorengo gazteluak izan diren bizitza eta batailako hainbat datu berri ere ageri dira: hildakoak non ehortzi zituzten, setioa nolakoa izan zen, barruan ziren hainbatek nola egin zuten ihes gauzez...».



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Lekarozko komentua botatzen hasi dira

Lekaroz aldera, inoiz baino mugimendu haundiago ikusten da. Baztandar aunitz dira, oinez edo kotxez, komentura hurbiltzen direnak, eraman duten izugarriko makina ikusteko. Behitegia eta hiltegia zena zabor bihurtu da, eta baratzea eta frontoi ondoko futbol-zelaiak ere –egun batean konzentrazioa izan zena–, desagertu dira. Egun gutti gelditzen zaizkio garai batean lehen mailakoa izan zen ikastetxeari.



ARGAZKIA: RUBEN GARATE

Artelaren erakusketa Iruritako Olari jatetxean

Artelaren erakustoki bihurtu da Iruritako Olari jatetxea. Bere paretetan, Ana Mari Marin, Rafael Ubani Villareal eta Narciso Rota margolarien eta Xabier Landaren (Argazkilarien Nazioarteko Canon Saria eta Gourmand World Cookbook 2008 Saria) eta Martin Zalba argazkilarien lanak ikusgai paratutako baititu. As-tearte honetatik, azaroak 10, abenduaren 27ra Ana Mari Marinen obren txanda izanen da; gero Xabier Landarena (abenduaren 29tik otsailaren 14ra); eta Narciso Rota (otsailaren 16tik apirilaren 4ra); Martin Zalba (apirilaren 7tik maiatzaren 23ra) eta Rafael Ubani Villarrealen artelanak (maiatzaren 25etik uztailaren 18ra) etorriko dira gero.



KULTURA → EUSKAL KANTU ZAHARRAK

Kantu Zaharren VI. Eguna egingen da azaroaren 28an Dantxarinean

Txartelak
50 eurotan
Dantxarinean,
Sunbillan eta
Elizondon salgai

TTIPI-TTAPA

Euskal kantak abes-
tea gogoko dutenak ez
dira urteroko hitzordurik
gabe geldituko. Izan ere,
Sunbillan bizi den Angel
Mariezkurrena eratsun-
darrak aurten ere Kantu
Zaharren Eguna antola-
tu du, seigarren urtez se-
gidan. Azaroaren 28an
izanen da, azken lau ur-
teotan bezala, Dantxari-
neako Peio Bentan, Lu-
garana jatetxean.

Egun osoko egita-
raua antolatu du:
14:00etan bazkaria egi-
nen da, bazkalondoa
kantuan ariko dira, eta
20:00etan berendu-afar-
ria egingen da. Ondotik
kantuan segituko dute.
Aurten, gainera, Marti-
koren produktuekin osa-
tutako bortz zare ere
zozketatuko dira. 10 eu-
rotan autobusak ere iza-
nen dira.



ARGAZKIA: ITZIAR ALEMAN

Kantu zaharrak abesteak gure eskualdean duen afizioaren erakusle, urriaren 31n Elizondoko Lur dantzalekuan egindako emanaldia dugu. Egun horretan mahainguruko kantuen diska aurkeztu zuten. Jalisko Bandeko taldekide batzuen musikarekin, Amairuko Juan Mari eta Itziar Aleman anai-arrebak, Erratzuko Antonio Inda, Eratsungo Angel eta Patxi Mariezkurrena anaiak eta Luis Mari Retegi, Urrozko Lorea Babaze, Sunbillako Alfredo Arretxea eta Aitziber Etxeberria eta Doneztebeko Alberto Zunzarren abeslariak dira diskan parte hartu dutenak.

TXARTELAK SALGAI

Dagoeneko txartelak
salgai daude 50 euro-
tan Sunbillako Itturbu-
ru ostatuan, Elizondo-
ko Antxitonean eta
Dantxarineako Peio
Bentako harategian.
Prezio horretan, urtero
argitaratzen den eta 40
kantu berri izanen ditu-
en liburuaz gain, egun
osoko ospakizuna sar-
tua dago.

Obra berriak Joxeneatik Lapitxurira

Hilabetetako lanen ondotik, N-121Bko zerharbideko lanak akitu direla erran daiteke. Errepidea bera egingo dago, eta lerro hauek idazterakoan, espaloiak egin eta lorategiak txukuntzen ari ziren langileak. Gainerakoan, sei biribilgune egin dira 2.020.000 euroko aurrekontuarekin eduki duten lan hauekin. Baina obra hauek akitzearekin ba-

tera, bertze batzuk hasiko dira. Joxeneatik Lapitxurira doan zatia berrituko da. Udalak lan horiek egiteko deialdia egin zuen bere garian, eta epea pasatuta, Afisa enpresari esleitu dizkio obrak. 110.000 euroko aurrekontua izanen dute eta 15 eguneko epea izanen dute. Beraz, azaro bukaerarako eginak egon beharko dute.

FLASH

Eskolan jantokia egin dadin bilera

Urdazubiko eta Zugarramurdiko gurasoen aspaldiko nahia da eskolan jantokia eraikitzea. Baina badirudi arazoak daudela, urtebete baino gehiago baitaramate gaiarekin bueltaka eta oraindik ez dute lortu. Arazo honi aterabidea emateko, bi herrietako alka-teak bilkura egitekoa zuten joan den astean Alberto Catalan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilariarekin.

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

100 egutegi
70€

Kulturkari
Andutzeta, 12 - ETXALAR
T. 948 635 458
kulturkari@ttipi.net

ZUGARRAMURDI/URDAZUBI

TURISMOA → EMAITZA ONAK

Nafarroako bigarren tokirik bisitatuena Zugarramurdi da

Nafarroako Gobernuak egin du zerrenda eta seigarrena Urdazubi da

Margari eta Koro

Nafarroako turismoari dagozkion datuak bildu ondotik, Nafarroako Gobernuak Turismo Sailak herrialdeko hamar tokirik bisitatuena zerrenda egin du, eta sailkapen horretan bigarrena ageri dena Zugarramurdi da. Ekain erdialdetik irailaren 30era bitarteko datuak hartu dituzte kontuan, eta hala, Erriberriren ondotik, gure herriak jaso ditu emaitzarik onenak. Leizeak eta Sorginen Museoa dira batez ere, turistak erakartzen dituztenak.

Zerrendan, gure leize eta museoaren gibelatik, Leireko Monaste-

ria dago; Xabierko Gaztelua gero; Orreaga bosgarren; Urdazubiko leizeak seigarren; Iruñeko Katedrala eta bere museoa ondotik; Nafarroako ibilbide turistikoak zortzigarren postuan; Mendukiloko leizeak bederatzigarren eta Sendaviva parkea da hamargarren bisitatuena.

Turismo aldetik datu pozgarriak dira.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Etxelekuko gasnarentzat urrezko domina Kanaria Handia irlan

Etxelekun gasna onak egiten zituztela bagenekin, eta azkeneko aldi huntan lortu duten sariak fama ongi irabazia dutela erakusten du. Urriaren 1etik 3ra Kanaria Handia irlan, World Cheese Awards 2009 izeneko munduko gasnen txapelketa egin zen. Denetara 2.440 gasna aurkeztu ziren 37 nazio desberdinetakoak, eta harat gan ziren Etxelekuko gasnategiko nagusiak ere, beren gasna batekin. Hainbetez gasnen artean hoberenak bilatzeko 140 dastatzaile aritu ziren lanean, eta hara non, sari bat Urdazubira etorri zela, Idiazabal izeneko mailan urrezko domina lortu baitzuen. Zorionak Etxelekuko familiari! Informazio gehiago www.itggnadero.com web orrian ikusten ahal da.

ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Antzerki taldea Bartzelonan

Antzerki taldearen harat-honatek ez dute etenik. Azkena Bartzelonara egindako bisita izan da. Sant Feliu Saserra herrian egiten den sorginen gauean parte hartu zuten gan den aste hondarrean. Herri hau sorginen kondairengatik ezaguna da eta horiek ezagutzeko ibilbide bat ere badago.



ANZABAL

AGENTZIA



Zurich Asegururak

Autoa, elivehizta, istripu eta bitzta aseguruak

Lan aholkularitza

Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

Errenta Deklarazioa, BEZA...

Inmobiliaria

Baserri, borda, preu, etab... salmenta eta alokatzea

Gestoria

Bilgailuen transferentziak, gidatzeak, kamioien berritzea eta edozein geako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO

Tfnoa: 948 580 804

anzabal@anzabal.com

MONTXO OSTATUA



Dantzarineatik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • URDAZUBI

Egunero Irakia 10:30etik 02:30era

OSPAKIZUNAK → ZIRIKOLATZ DANTZA TALDEAK 30 URTE

Zirikolatz euskal dantza taldearen 30. urtemuga hunkigarria izan da

Lehengo eta oraingo dantzariak elgatu dira

Franck DOLOSOR

Hiru hamarkada bete dira Zirikolatz Senpereko euskal dantza taldea kultura sustatzen ari dela. 30 urtez ehunka senpenterrek parte hartu dute abentura hortan eta denek oroitzapen ezin hobeak atxiki dituzte. Duela 20 urte, gaur egun baino mutil gehiago ari zen dantzatzen... Eta urteen buruan ez dituzte urratsak ahanzi, ez horixe. Hogoita hamargarren urtemugan, ingurutxo ederki eskaini zuten lehenagoko dantzariak.

GIRO BIKAINA

Besta hoberenak prestatuak ez direnak omen dira. Giro ona, noiznahi eta uste ez den momentuan piztu daiteke. Hori gertatu zen Zirikolatz euskal dantza taldearen hogoita hamargarren urtemuga bestaren karietarat, gan den urriaren 25ean. Goizeko mezaren ondotik, lehenagoko eta gauregungo dantzariak Inharrean bildu ziren elgarrekin bazkaltzeko. Aperitifia den-



ARGAZKIA: MARIE JEANNE BERAU

Giro ederra sortu zen Zirikolatz dantza taldearen urteurreneko ospakizunean.

boran, lehenagoko argazki erakusketa ikusteko parada izan zen. Zonbat bidai, zonbat ateraldi, zonbat ikusgarri, zonbat urte? Balio handiko argazki horiek ongi erakusten dute zonbat lan eta plazer izan duten ehunka senpenterrek euskal dantzaren inguruan. Argi da lanean ari zela balio duela, zerbeit gelditzen baita beti:

jakitatea eta adiskidetasuna. Urtemugako bazkari hondarrean, bat-batean lehenagoko dantzariak xutitu ziren eta dantzariak hasi ziren duela hamabortz edo hogoi urte bezala. Entsegurik egin gabe, txistulariak betiko doinuak jozitzen: aureskua, banako, txontxogilo, ingurutxo, makil tiki... Eta urteak pasatu ez balira bezala, gizon eta

emazte bilakatu diren/garen dantzari ohiak dantzan hasi ziren/ginen. Batere prestatua ez zen bat-bateko momentu hori nekez ahanzikatu dute/dugu Senpereko gazteek eta dantza taldeko arduradunek. Euskal dantzan aritzea bizikletan ibiltzea bezala da doike, ez da sekulan ahanzten. Noizko dantzari ohien talde berria?

FLASH

Herritar talde bat hilabetero bilduko da treinbide berriaz eztabaidatzeko

Senpere zeharka leza keken abiada haundiko treinbide berriaren proiektuak kezka haundia sortu du gure auzoetan, bereziki Helbarrun aldean, auzo hori izan baitaiteke kaltetuena. Ingu-ruetako herrietan jadanik egin den bezala, Senperen ere herritar talde bat sortzekotan da informazioa emateko eta proiektuari buru egiteko. Urriaren 30ean, 50 lagun bildu ziren Elkartexean eta horietatik erdia bederen ez omen zen sekulan agertu orain arte egin diren gisa hortako bilkuretan. Herritar multzo horrek deliberatu du hementik goiti hilabetean behin bilduko direla hilabeteko bigarren ortziral aratsean. Ez da dudarik ondoko bilkuretan aipagai ainitz izanzen dutela proiektua ainitz aitzineratzen ahal baita hazil huntan. Hilabete erditsuan, Frantziako garraio ministroa bilduko omen da Lapurdiko hautetsiek, eta hilabete hondarrean treinbidea nundik pasako den jakinen omen da. Urtarrilean, proiektuaren kontrako manifestaldia egingen da Hendaian eta martxoan ospatuko diren Akitaniako bozen karietarat erreferenduma iraganen da jakiteko senpenterrek zer dioten treinbide berriaz.

CAMELOT PARK
2 SARRERA
BIDALI ttipi saskia
5767

SARA

FUTBOL TXAPELKETA → SEASKAREN ALDE

10 talde Integrazio Batzordearen aldeko futbol txapelketan

Bigarren mailako finala Sarako bi taldek jokatu zuten

Xan HARRIAGUE

Arrakasta izan du Seaskako Integrazio Batzordearen alde Gaztetxeak, Atxuri Urdin peñak eta Olhain ikastolak antolatu zuten futbol txapelketak. Hamar taldek parte hartu zuten, 60 bat jokalarik gutxi gorabehera. Azkaingo taldeak irabazi zuen, lehen mailako finalean Angelukoa menean hartuz. Bigarren mailako finalean, berriz, saratarren arteko derbia izan zen. Sarako Izarra errugbi taldeko ordezkariak Atxuri Urdin peñaren kontra aritu ziren, baita nagusitu ere. Aipatzekoa da, bi talde Xiberoatikorri zirela. Antolatzaileen arabera, egun guzian lagun arteko giroa izan zen nagusi.

EGUNKARIAREN ALDE

Eguerdiko atsedendian, parte-hartzaile ge-

hienek elgarretaratzea egin zuten Euskaldunon Egunkariaren hetsiera salatze eta auzipetuei elkartasuna adierazteko.

Egunkaria duela sei urte hetsi zuten, baina heldu den asteetan hasiko da epaiketa Joan Mari Torrealdei, Xabier Oleada, Iñaki Uria, Txema Auzmendi eta Martxelo Otamendiren aurka. Akusatzaileek diote Euskaldunon Egunkaria ETaren tresna zela eta bost kazetari ohiei eta kide izatea leporatzen diete. AVT eta Dignidad y Justicia elkarteak dira akusatzaile bakarrak prokuradoreak berak auzia artxibatzea galdetu baitu frogarik ez delakoan.

Eguberrietako merkatua

Hazilaren 28an, izanen da aurtengo Eguberrietako merkatua. Azken urte hauetan bezala, eskola pribatuak eta ikastolak bat eginen dute eskulanak, apaingarriak, liburuak, diskoak eta jantziak saltzeko Eguberrien bezperan. Merkatua



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Paxaka txapelketa hasi da

Paxakako liga abian da. Aurtun ere herriko hiru talde ariko dira. Lehen mailan talde bakarra izanen da: Andoni Alli eta Jean Jacques Elizeri, eta bigarren mailan, berriz, bi: Patxi Barandiaran eta Matiau Berriet, eta Patrik Etxegarai eta Panpi Elizalde. Partidak igande goizetan izaten dira pleka trinketean.

09:00 aldean hasiko da plazan berean. Irabaziak urtean egiten dituzten

hainbat ekitaldi eta ateraldien ordaintzeko baliatuko dituzte.

FLASH

Santa Katalinak Iharrean

Hazilaren 21ean eta 22an ospatuko dira aurtengo Santa Katalinak Ihararren, alegia, hiruzpalau egun lehenago asteburuarekin bat egin ahal izateko. Larunbatean tripotx jatea izanen da Baratxartean.

Biharamuneko meza Santa Katalineko Elizan izanen da 10:30ean, eta ondotik, berriz, mutxikoak eta tripotx jatea Baratxartean.

Presoen aldeko aperitifa igande honetan plazan

Euskal presoen eskubideen aldeko aperitifa eginen da heldu den igandean, hazilak 15, plazan.

Kotto Alzuguren beratarra hil zenaren laugarren urteurrena pasatu eta egun gutxira sakabanaketa salatu da. Horrela, agerian utziz Espainiako estatuak euskal presoak nahita urruntzen dituela, ehunka kilometrorra preso izateaz gain, kartzela barneko bizi baldintzak txartzeko eta bisitak gutxitzeko.

Rekordatorioak

egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI • Andutzeta, 12 • ETXALAR • 948 635 458

EZKONTZAK

Juan Sein Sein eta **Leire Agirrebarrera Agirre**, Igantzikoa eta Irungoa, urriaren 30ean Igantzin.

Joseba Iurre Vega eta **Itxaro Sagastibelza Zabaleta**, Iruñekoa eta Leitzakoa, irailaren 26an Leitzan.

Raul Calvo Goñi eta **Gurutze Bengoa Muñoa**, Donostiakoa eta Tolosakoa, urriaren 24an Leitzan.

Miguel M^a Ugalde Lizarreta eta **Itxaso Villanueva Zeberio**, Saldiasakoa eta Lesakakoa, urriaren 10an Lesakan.

Iñaki Urrutia Lizarreta eta **Itziar Braña Agesta**, Elbetekoa eta Oieregikoa, ekainaren 6an Oieregian.

Mikel Etxabarri San Migel eta **Isabel Lakar Migeltorena**, Oronoz-Mugairikoa eta Legasakoa, ekainaren 27an Legasan.

Martin Opoka Mitxelena eta **Maite Iriarte Lastiri**, Narbartekoak, uztailearen 25ean Narbarten.

Juan Pablo Agirre Alzuat eta **Mai-der Telletxea Grajirena**, Narbartekoak, irailaren 19an Narbarten.

Frederic El Mouhed eta **Vanessa Pignet**, urriaren 24an Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Asier Mutuberria Pagola, Arantzakoa, urriaren 20an.

Izaro Saralegi Lopez, Leitzakoa, irailaren 5ean.

Nerea Ansorena Astibia, Leitzakoa, irailaren 19an.

Aimar Rekondo Caballero, Leitzakoa, irailaren 28an.

Unai Mendiburu Argote, Zubietakoa, urriaren 29an.

Iraia Pikabea Aldako, Lesakakoa, urriaren 23an.

Ugaitz Rebollo Gamio, Lesakakoa, urriaren 25ean.

Xuban Lakar Pacheco, Legasakoa, urriaren 1ean.

Iraia Telletxea Elizalde, Doneztebekoa, urriaren 6an.

Adam Vicente Otxandorena Leon, Doneztebekoa, urriaren 20an.

Leire Gallego Montoia, Doneztebekoa, urriaren 19an.

Unai Irigoien Sanz, Doneztebekoa, urriaren 21ean.

Uhin Senper Lekunberri, Etxalarakoa, urriaren 21ean.

Eneritz Aranburu Galarregi, Etxalarakoa, urriaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Ignacio Gorostidi Manrique, Elizondokoa, urriaren 23an, 82 urte.

M^a Angeles Goñi Erbiti, Arraiozkoa, urriaren 27an, 78 urte.

M^a Teresa Zabaleta Zabaleta, Leitzakoa, urriaren 28an, 70 urte.

Micaela Goñi Lamiotxipi, Iruritakoa, urriaren 30ean, 67 urte.

Oliva Tapia Goñi, Lesakakoa, urriaren 30ean, 62 urte.

Kattalin Elorga Gurrutxaga, Urdazubikoa, azaroaren 1ean, 78 urte.

Maria Ramona Ibarra Petrirena, Sunbillakoa, azaroaren 1ean, 94 urte.

Jeanne MarieMouhica, Sarakoa, urriaren 12an.



Lino INDAKOTXEA

Zubietan, 2009ko urriaren 20an

Lino bihotz garbia ta handiaren jabea zure jatortasuna zen paregabea zure irria eta zure umorea beti izanen dugu gurekin gordea

Lino, asko maite zaitut.

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Txiki-txikitatik datorkio kirolerako afizioa Judit Saizarri (Leitza, 1993-10-27). Igeriketan hasi zen, txirringularitzari heldu zion gero eta gaur egun triatloian ibiltzen

da. Eta ederki moldatzen da gainera. 16 urterekin, hainbat garaipen eskuratuak baititu. Orain, beka bati esker, Madrilgo egoitza espezializatu batean hasi du denboraldi

berria, eta Batxilergoko lehen mailako ikasketak eta entrenamenduak hantxe egiten ditu. Hurrengo ikasturtea ere han egitea gustatuko litzaioke.

Judit SAIZAR | Leitza triatloilaria


«Triatloian hasi eta bi urtera European jokatzera oso haundia izan zen»

G. PIKABEA | LEITZA

Bi urte besterik ez zituela atera zen lehenbiziko aldiz krosean Judit Saizar Leitza kirolaria. Eta noski, korrikalari gazteenaren saria jaso zuen. Gerotik ez dagelditu ere egin. Ez da kirola egitetik bizi, baina kirola egin gabe ezin du bizi. 16 urte bete berri-tan palmares bikaina du: Nafarroako, Euskal Herriko eta Espainiako garaipenak, eta nazioarteko parte-hartzeak tartean.

Ama kirolaria izaki, txikitatik sartu zen mundu horretan: «Bost urterekin Lekunberriko Itxesia Igeriketa Taldean hasi nintzen». Eta gero, txirringularitza etorri zen: «negan igeriketa, eta udan deus ere egiten ez nuen, lagun batek bizikletan hasi nahi nuen galdetu zidan, eta probatzeko hasi egin nintzen». Probatu eta gustatu.

Igeriketa eta txirringularitza tartekatzen hasi zen eta lehen garaipenak ere orduan etorri ziren. Denak aipatzea zaila litzateke, baina batzuk nabarmentzekotan, infantilen mailan, igeriketan, Euskal Herriko 200 metro libreko txapelketan bigarren gelditu zenekoa, edo txirringularitzan, Euskal Herriko txapeldun, Espainiako Txapelketan zazpigarren eta Espainiako Kopan hirugarren gelditu zenekoak daude.



Judit Saizar.

UTZITAKO ARGAZKIA

TRITATLOIAN ERE BAI

«Igerilari eta txirringulari ona bazara, zergatik ez zara triatloian hasi?» Horixe proposatu zion lagun batek, eta Juditek ezezkorik ez, aurrrera. Kirolarekin lotura baldin badu, probatzeko beti prest. «13-14 urte edukiko nituen eta urte hartan proba bat egin nuen. Gustatu zitzaidan, baina ez nion garrantzia gehiegirik eman», adierazi du. Baina hurrengo urtean talde batean sartzea erabaki zuen. Sakana Triatloi Taldean abiatu zuen ibilbide berria eta

EGUNA BETE-BETEA
«07:20an jeiki, gosalduta eta 08:00etatik 10:30era klasean. 10:45ean korrika egitera, eta ordubete edo ordu eta erdiko saioaren ondodetik, dutxatu eta bazkaltzera. 15:00etan berriz klasea, 17:30 bitarte. 18:30ean hasita, ordu bat gimnasioan eta ondodetik igeri egitera. Bukatzerako 21:00-21:30 izaten dira. Gero afaldu, lagunekin egon eta lotara»

honetan ere ez zen atzera gelditu: kadeteen mailan, Espainiako txapelketan zortzigarren eta laugarren postuak eskuratu zituen –bere adinekoetan bigarrena eta lehena–, eta nazioartean jokatzeko deia ere jaso zuen. Horixe izan da, hain zuzen, hainbeste proben artean, bat aukeratzeko eskatuta hautatu duena: «triatloian hasi eta bi urtera Europako txapelketa batera joatea oso haundia izan zen».

Azken denboraldi hau ere bikaina izan da leitzar gaztearentzat. Na-

farroako Lagunak Taldearekin, Espainiako triatloi eta duatloi txapelketan bigarren postuak eskuratu ditu.

Denboraldi berria Madrilan hasi du Saizarrek. Beka bati esker Blume erresidentzian dago eta horrek entrenatzeko aukera gehiago ematen dizkio. «Kasten eta entrenatzen pasatzen dut eguna». Hala, «07:20an jeiki, gosalduta eta 08:00etatik 10:30era klasea joaten naiz. 10:45ean korrika egitera, eta ordubete edo ordu eta erdiko saioaren ondodetik, dutxatu eta bazkaltzera. 15:00etan berriz klasea, 17:30 arte. 18:30ean hasita, ordu bat gimnasioan eta ondodetik, igeri egitera. Bukatzerako 21:00-21:30 izaten dira. Afaldu, lagunekin pixka bat egon eta lotara». Egun konplettoa, beraz. Eta hurrengo urtean ere egoitza honetan segitu nahi du. Kirola egiten ongi moldatzen dela jakina da, eta ikasten?: «ez naiz oso ona», aitortu digu.

Ziurgabetasunez begiratzen dio etorkizunari, «ez dakit zer egingen dudana», dio. Baina kirola egiten segitu ala ez, hortan ez du zalantzarik: «bai». Bere bizitzako ametsa ere bide horretan doa, «olimpiadetar joatea» baita. Adin eta dohain horiekin aukera haundiak baditu behintzat. Zorte on!

LASTERKETAK → LIZUNIAGAKO IGOERA

91 korrikalarik parte hartu dute Lizuniagako Igoeraren XXIX. edizioan

Antsoingo Daniel Sanz eta Maika Ariztegi iturendarra txapeldun

TTIPI-TTAPA | BERA

91 korrikalarik parte hartu zuten urriaren 24an Berako Gure Txokoa elkarrekin antolatutako XXIX. Lizuniagako Igoeran. Eztegarra pilotalekutik abiatu eta Lizuniagako kaxkora bitarte, 4,9 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten korrikalariek.

Lehenbiziko hiru postuetan borroka gogorra izan zen eta azkenean Antsoingo Dani-



UTZITAKO ARGAZKIA

Lasterkariak irteera puntuan.

el Sanz Elduainen nagusitu zen, 17:38ko denborarekin. Bigarren Lasarte-Oriako Gonzalo

Sukuntza izan zen, 7 segundora (17:45) eta hirugarren Ion Garraus irundarra (17:47). Albe-

to Barberena, Manttale taldeko baztandarra laugarren izan zen, 18:32ko lana egin ondotik. Le-

hen beratarra Angel Ponbar izan zen hamabigarren postuan, Mikel Inda hamalagarren izan zen, Juan Luis Irazoki hamabosgarren eta Beñat Mitxelena gaztetxoa hamaseigarren.

**MAIKA ARIZTEGI
EMAKUMETAN**

Emakumeen artean, Maika Ariztegi iturendarra nagusitu zen berriaz ere, 22:26 denborarekin. Bigarren Ondresko Virginia Arotzarena izan zen, 24:04ko denbora egin ondotik eta hirugarren Eibarko Ane Ziaran, 27:13ko denborarekin. 91 korrikalaritik sei baino ez ziren emakumezkoak.

AIZKORA → EUSKAL HERRIKO MAILA NAGUSIA

Abenduaren 20an Arbizun jokatuko da Aizkora Txapelketako final haundia

Kanporaketa Asteasun jokatuko da azaroaren 22an

TTIPI-TTAPA | ARBIZU

Erabakia dago non eta noiz jokatuko den Euskal Herriko Maila Nagusiko Aizkora Txapelketaren 25. edizioa: finala abenduaren 20an egingen da, Arbizun (Nafarroa), 12:30ean.

Finalean ariko diren aizkolariak zein izanen diren Asteasun (Gi-

puzkoa) azaroaren 22an egingen den kanporaketan erabakiko da. 17:30ean hasiko da lehia.

12 AIZKOLARIAK

Hauek dira lehen maila osatzen dutenak: Floren Nazabal (Etxarri-Aranatz, Nafarroa), Antonio Senosiain (Olague, Nafarroa), Luis Txapartegi (Aizarna, Gipuzkoa), Joxejuan Barberena (Beruete, Nafarroa), Juan Jose Lopez (Lezaun, Nafarroa), Aitor Senosiain (Olague, Nafarroa), Iñá-

ki Azurmendi (Arriaran-Beasain, Gipuzkoa), Jexuxmari Mujika (Ibarrera, Gipuzkoa), Joxemari Olasagasti (Igeldo, Gipuzkoa), Joseba Otaegi (Zizurkil, Gipuzkoa), Daniel Vicente (Otsagabia, Nafarroa) eta Jose Angel Zubiaga (Meoio, Araba). Otaegi eta Zubiaga lehen aldiz ariko dira Euskal Herriko Maila Nagusiko Txapelketan.

Kanporaketako lehenbiziko sei sailkatuek finalerako txartela eskuratu dute eta azken biek maila galduko dute.



Floren Nazabal etxarriarra da gaur egungo txapelduna.

azaroak 13-26

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ELIZONDO | 2009.11.15/22

Folk Ametsetan egitarauko bi kontzertu

Argazkiko Muyayos de Raiz eta Mielotxin taldeak kontzertuak eskainiko dituzte Arizkunenean, Europako eta Euskal Herriko folka plazaratuz.

Ospakizunak



ESKUALDEA | 2009.11

Santa Zezilia eguneko ospakizunak herriz herri

Musikariaren eguna azaroaren 22a bada ere, egun horren inguruan hainbat kontzertu, kalejira eta emanaldi antolatuta dituzte eskualdeko musika eskoletan.

Antzerkia



LEITZA | 2009.11.21

'Ate joka' antzezlanaren ALKEren eskutik

ALKE Kultur Taldeak antolatuta, Sara Kortazar, Joseba Usabiaga eta Iker Galarza aktoreak lanean ikusteko aukera izanen da zineman 22:00etan.

musika eskolakoak Elizondoko karraketan, 17:00etatik aitzinera.

BERA

Santa Zezilia Eguna

Azaroaren 26an Santa Zezilia eguneko kontzertua 18:00etan Musika Eskolan.

LESAKA

Santa Zezilia Eguna

Azaroaren 21ean musikariaren eguna ospatzeko Lesakako musika taldeek emanaldiak eskainiko dituzte herri barna.

Feriak

DONEZTEBE

Udazkeneko Feriak**Azaroaren 13an.**

LESAKA

Udazkeneko Feriak

Azaroaren 19an. Xehetasunak 13. orrian.

Ikastaroak

ELIZONDO

Astrologia ikastaroa

Ortzegunero 19:00etatik 21:00etara, guttienez 6 laguneko taldea osatuta. Karta astrala interpretatzeko ikastaro praktikoa. Informazioa: izarjewel@hotmail.com

Ipuin kontalariak

BERA

Haurrentzako ipuin kontalariak

Urriaren 30ean Ipuin ttikiak kontatuko ditu Ines Bengoak 4-7 urte artekoentzat, 18:00etan liburutegian.

Ospakizunak

LESAKA

Bai Euskarari Eguna

Azaroaren 15ean hainbat ekitaldi antolatuta ditu Euskara Batzordeak.

Antzerkiak

BERA

XI. Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 13an, Txirrene Antzerki taldearen *Gezurrezko printzea* lkuilu ostatuan 22:00etan.

Azaroaren 27an, Apurka antzerki taldearen *Han izan ezik, hona naiz* antzezlanaren Xuga ostatuan.

LEITZA

'Ate joka' zineman

Azaroaren 21ean, ALKE kultur taldeak antolatuta *Ate joka* antzezlanaren eskainiko dute zineman 22:00etan Sara Kortazar, Joseba Usabiaga eta Iker Galarza aktore ezagunek.

ELIZONDO

Umetxoentzako antzerkia

Azaroaren 26an, Zirkus taldeare *Larar Larika* antzezlanaren ikusgai izanen da Baztango Haur Eskolan, Nafarroako Gobernuaren Arte eta Kultura programaren barruan.

Aurkezpenak

ELIZONDO

Amaiurko gazteluaz liburua

Azaroaren 20an Iñaki Sagredoren *El Castillo de Amaiur a través de la historia de Navarra* liburua aurkezpena egingen da 19:30ean Arizkunenea Kultur Etxean.

Erakusketak

URDAZUBI

Gaur egungo pintura**Urte osoan**, erakus-

keta. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monasterioan.

ELIZONDO

Baztan Larressore

Azaroaren 6tik 27ra Baztan Larressore pintura erakusketa Arizkunenean.

Kontzertuak

BERA

Leire Telletxearen akordeoi kontzertua

Azaroaren 19an Musika Eskolaren 30. ur-

teurrenako ekitaldien barruan, 18:30ean Musika Eskolan.

ELIZONDO

Folk Ametsetan

Azaroaren 15ean Muyayos de Raiz europar folka, 19:00etan Arizkunenean.

Azaroaren 22an Mielotxin folk euskalduna 19:00etan Arizkunenean. Folk Ametsetan egitarauaren barruan.

Santa Zezilia Eguna**Azaroaren 24an** udal

PROPOSAMENA

LESAKA

Bortzirietako aziendak sarituko dituzte

Azaroaren 19an egingen da eskualdean aziendarik onenak saritzen duen udazkeneko feria bakarra. Behi, zaldi eta ardi abereak plazaratuko dira Lesakan eta saria ere izanen dituzte. Bertsolariek, aizkolariek, artisauen erakusketak eta bertze hainbat ekitaldi osatuko dute eguna. Bezperan, ohiko ajoarriero lehiaketa ere antolatuta du Beti Gaztek.



Solasaldiak

ELIZONDO

Donejakue eta Argako bideetaz

Azaroaren 16an *Donejakue eta Argako bideak: elkargune bat* solasaldia antolatatu du Arizkunenean 19:00etan Baztan eta Urdazubiko Santiago Bidearen Lagun Elkar-teak.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleak

Azaroaren 15ean Auritzera ateraldia egingen dute.

Azaroaren 22an Erdiz Bizirik ateraldia egingen dute.

BERA

Endarlatsa-Behobia

Azaroaren 15ean bigorritik ibilbidea egingen du Larun Ttiki menditaldeak.

Zinema

LEITZA

Denboraldi berria

Azaroaren 13 eta 15ean *Enemigos públicos* filma ikusgai.

Azaroaren 20 eta 22an *Vacaciones de ferragosto* filma.

Azaroaren 27 eta 29an *Un cuento de Navidad* filma ikusgai. Ostiraletan 22:30ean, igandetan 19:30ean.

LESAKA

Sukalde kontuak

Azaroaren 14an *Sukalde kontuak* filma ikusgai komentuan 18:00etan. Sarrera doan. Euskarabideak eta Lesakako Udalak antolatua.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Musika airean


KARMELE JAI

Elkar, 2009

Leihon ondoan ematen du eguna Elenak, kalera begira, munduan egin beharrekoak eginda di-tuelakoan. Seme-alabek Ekuadorreko neska bat ekarri diote, etxeko lanetan laguntzeko eta etxetik ateratzera animatzeko. Elenak, baina, bertan geratu nahi du, bere oroitzapenei atxikia. Maitasuna eta gorrotoa, adiskidetasuna eta zeloak, bizinahia eta etsipena... Sentimenduen nobela da Karmele Jaioren bigarren eleberri hau, pertsonaien nortasuna fintasunez deskribatzen duena eta, oroz gain, bizitza den sinfonia erraldoiaren handitasuna azpimarratzen duena, bere gazi-gozo eta kontraesan guztiekin.

Karmele Jaio (Gasteiz, 1970) kazetaria da ikasketaz eta lanbidez. Literaturan, bi ipuin bilduma kaleratu ditu orain arte: Hamabost zauri (2004) eta Zu bezain ahul (2007), eta eleberri bat, Amaren eskuak (2006).

Musika




Sunbilatik kantuz kantu

ZENBAITEN ARTEAN

Sunbillako kanpinean asteburuak lagunartean skantari eta musika jotzen pasatu ondotik, diska berezia karrikaratu dute Jon Zubeldia (gitarra eta ahotsa), Antton Erauzkin (ahotsa eta ahoko soinua), Juan Carlos Sasso (kitarra, banjoa eta kadakinoa) eta Egoitz Maia (baxua, koroak) musikariek. Eta diskari izenburua jarri behar eta nola ez: *Sunbilatik kantuz kantu* jarri diote, nahiz eta inor ez den sunbildarra. Diskaren azala, berriz, Jon Zabaleta egin du. Diska honetan, Habanera, Asto Gaixua, Arboa gainian, Ai zer plazerra, Zazpiak oihal bate-tik eta Loretxoa kantuak aditzen ahal dira, kanta klasikoak baina musikari hauen bertsio bereziak emanak. Talde honen eta diska honen inguruko jakin-garri gehiago 689 558490 telefonoan edo Interneteko www.myspace.com/sunbilatikkantuzkantu helbidean topatzen ahal dira.

Internet



Sarako Izarra errugbi taldea sarean

sarako.izarra.free.fr

Sarako Izarra errugby taldearen berri izateko modua ematen du bere webguneak. Gune hau kirol elkarte honen bizia zabaltzeko eta iragana tinto atxikitzeko antolatua da. Taldeak ezagutu nahi dituzu? Egutegiak? eta Txapelketen emaitzak? Zoz *Taldeak* sailara. *Elkartea* sailean ikus dezakezu taldeen balentria eta sailkapenak, baita hauen egitaraua ere. Sarako Izarren bizitzako bere ordu pozgarrienak, bere iragana, gaurko egoera, ekitaldiak, hauek denak *Elkartearen bizia* sailean aurkeztuak dira. Album argazkia *Galeria* sailean dago. Kirol elkarte baten bizia gizakiaren arteko harremanetan oinarritzen da, hurbil zaitez *Tribune libre* sailara. Elkartearekin harremanean sartzeko eta gune hau hazteko dago *Loturak* saila, «denok elgarrekin gure oroitzapenez argazkiez, ixtorioez, ... Sarako herriak daukan atxikimendua bere izarren baitan azkartzeko».

Nire aukera



Pablo FEO
Leitzako monitore okupazionala

Nire hiru umeekin egotea bizitzaren pasarte honetako nere aukera da

Lanbidez monitore okupazionala baldin bada ere, argazkilari-tzarako afizio handia dauka Pablo Feok eta berak egindako erretra-toekin (etxeetako atea edo paisaiak gaitzat hartuta) egutegi dotoreak argitaratu dira Leitzan azken urteotan. Baina, astia duenean, «nire hiru umeekin egoten naiz, beraz, bizitzaren pasarte honetan horixe da nire aukera. Argazkiak ateratzea ere gustatzen zait, nola ez!». Pablok aipatu digunez, «umekak eta argazkiekiko zale-tasuna bateragarri egingen ez da erreza batzuetan, baina besteetan oso aukera politak sortzen dira. Argazkien aitzakia-ekin paseo ederrak egingen ditugu edo umee-kin egoteko aitzakiarekin argazki ederrak lortu daitezke bestetik». Horregatik, asteburuko plan ona egiterakoan, familia guziaz hartzen du kontuan: «Plan ona? Eguraldi ederra, goizean goiz etxetik atera, egun osoa leku berriak ikusten eman, kanpoan bazkaldu, eta iluntzerako denak leher eginak etxeratu».

ETXEBIZITZAK
salgai

DONEZTEBE. Intzakar-di parkearen ondoan pisua salgai. Pisua ganbararekin elkartua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Garaje plaza-ekin. Berritua. ☎680 781632.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Dena mobleztatua eta berritua. Berogailuarekin. 189.000 euro. ☎948 630075/ 647 617837.

ARIZKUN. 90 m²ko pisua salgai. Sukalde mobleztatuarekin eta sartzeko prest. ☎646 245619.

BERA. 70 m² erabilgarri dituen pisua salgai. Teila-tua, fatxada eta barreratik irailean berritua. 3 logela, egongela, sukaldea eta trastelekua. 211.000 euro. ☎600 264852.

LEITZA. Amazabal kalean lehenbiziko pisua salgai. Mobleztatua, egoera onean eta igogailuarekin. ☎649 208310 (Deitu gaez).

DONEZTEBE. Zazpigerutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatua gabea. ☎630 948271.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan eman

IGANTZI. 90 m²ko pisua errentan emateko. Mobleztatua eta kalefakzioarekin. Hagitz egoera onean. ☎620 997794.

IRUÑEA. Iturruma auzoan ikasleendako pisua errentan emateko. 4 logela eta 2 bainugela. 850 euro. Berogailua eta komunitateko gastuak barne. ☎690 722683.

IRUÑEA. Unibertsitate publikoaren ondoan dagoen pisua errentan emateko. ☎669 082682.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎628 045374.

LESAKA. Bittiria karrikan, pisua errentan emateko, Aliproxen gainean, 3. solairuan. Dena mobleztatua eta gela guztiak kanpoaldera. 4 logela. ☎686 378154.

ETXEBIZITZAK
erosi

LESAKA. Etxe bat edo baserri bat erosi nahi da. ☎609 477277.

GARAJEAK / LOKALAK
errentan eman

LESAKA. Albistur karrikan lurrazpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

IRUN. San Migel karrikan, Urantzu azokaren ondoan, garajea errentan emateko. ☎619 147069.

ZERBITZUAK
Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu sarrirentuak konpromisarik gabe
- Iruñe Berritua
Tel: 948 534 048 - 647 870 144
Gertutik - ARANTZA

ZERBITZUAK
Bertzelakoak

BORDA
PLADUR LANAK
EUSKALDEHUNE DEKORAZIO
ERAKUNTZAK - GARAI ADELLARRA
178 948 637 546 - AL. 609 477 377
LESAKA (Nafarroa)
bordepilatu@bolafarrea.net

LURRAK / LOKALAK
salgai

ITUREN. 1.200m²ko lur eremua salgai. ☎660 368497.

LANA
eskariak

LESAKA. Neska bat zaharrak zaintzen edo garbiketan ariko litzateke, 08:00etatik 16:00etara. ☎667 605025.

Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎672 747754.

Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎617 627743.

Neska batek adinekoak edo harrak zaindu edo jabetxean lan egingen luke. ☎610 928049.

Emakume bat **sukaldari lanetan** ariko litzateke. Gidatzeko baimenarekin. ☎638 520090.

LANA
eskaintzak

Iparraldean eta inguruan lan egiteko ekipamendu sistema eta seguritatean lanean aritzen den enpresa batek **komertziala** behar du. Euskara, gaztelania eta frantsesa jakitea, elektrizitatean oinarritako ezagutza izatea eta norbere autoa izatea eskatzen da. Curriculumak: info@sidepnor.com edo Sidepnor S.L., Cuesta de la Encina 26, 01474 Artzi-niega (Araba).

BERA. Egun erdiko lana eskaintzen dut, 18:00etatik 22:00etara. ☎648 231368.

LESAKA. Baserri batean zaharrak zaintzeko eta sukaldean lan egiteko emakume bat behar da. ☎948 637968/659 843528.

MOTORRA
salerosketak

Volkswagen Polo gorria salgai. 2000koa. Egoera onean eta kilometro guttirik. 2.400 euro. ☎608 825417.

Renault Clio NA-8531-

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(urriaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 36,00 € (+6,00)

Zerri gizena
0,995 € kilo. (-0,015)

Zerramak:
0,390€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,89 (=)

1.koa 3,59 (=)

2.koa 3,89 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,99 (=)

1.koa 3,69 (=)

2.koa 2,95 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,82/2,92
Zaldi-behorrak: 1,52/1,72

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 8,30/9,10
8-10 kilokoak: 7,00/7,40

AF salgai, 1.2 RL, 3 atekoa, urdin iluna. 150.000 kilometro. Egoera onean. 500 euro. ☎948 630886.

Suzuki Grand Vitara salgai, 3 atekoa. 33.000 kilometro. 14.000 euro. ☎607 924379.

Honda Hornet 600, Nakad salgai. 6.000 kilometro. Egoera onean. ☎948 638299.

Peugeot 206, 1.6-16V gasolina salgai. 115 zaldi, extra guziekin. 4 gurpilak berriak, klimatizagailua, llantak, musika ekipo ona, beira beltzak, suspentsioa bajatu. Dena homologatua. 2 urte-tarako ITV pasatua. 60.000 km. Oso egoera onean. ☎666 230820.



Mitshubishi L200 pickup-a salgai. 2005ekoa. Oso egoera onean. A/A, CC, EE eta berde kolorekoa. Atzeko toloda kuñan dauka eta

toldoa originala da. Remolkerako engantxearekin. ☎687 544646/948 451832.

Audi TT 1.8 Quattro autoa salgai, 225 CV. 93.500 km. Egoera onean. Prezioa: 14.000 euro. ☎637 781797.



Mercedes Vito Marco Polo furgoneta salgai. 2000koa. 210.000 km. Sukalde montatua, fregadera, frigorifikoa, 4 pertsonak lo egitekoa, berogailua eta dutxa. ☎607 890923.



ANIMALIAK oparitzeko
Artzain **zakurkumeak** oparitzeko. ☎620 985265.

LEITZA. Espaniel zakurbaten kumeak oparitzeko. ☎659 576969.

Arratoi zakurkumeak oparitzeko. ☎628 446394.

ANIMALIAK
salerosketak

Setter arrazako **zakurkume** emea salgai. 4 hilabete txertatua. Aita eta ama ehiztari onak. ☎661 821645.

Labrador Retriber arrazako zakurra salgai. 3 urtekoa eta hezia, konpainiarako hagitza ona. Papera baditu eta pedigrirekin. ☎670 251632.

Aker nanoa salgai. ☎616 860060.

ARANTZA. 28 ardi eta 2 ahari salgai. 948 634077.

DENETARIK
salerosketak

Sukaldea salgai, egoera eta prezio onean. ☎630 510918.



Talleres SANTESTEBAN
DONEZTEBE - Leitzaiko errep. 80 - T 948 450262

%25 Urte bukaera arte
%25 ko deskontua
%25 zure gurpilak aldatzean
%25 **%25**

GANIX TAILERRA
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA FIAT zerbitzua
Bermeola, 9 - Tel: 948 630 647

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI (gasolina eta diesela)
MITSUBISHI (luze eta laburrak)
TURISMOAK

3 urteko **trikitixa** salgai. ☎686 840064.

ARANTZA. Arkazia pike-ete ederrak salgai. ☎948 634204.

Haur batentzako **botoi-dun akordeoia** erosiko nuke. ☎618 963348.

NEGOZIOA IXTEAGATIK SALGAI!
Haurren jolasak, 4 sulo, sukante-industriale, liburuak, potoi eta ugintza onak, salantza tipikak eta sukaberrak trenak.
617 461649

ttipi-ttapa

ttipi-ttaparen motxila eskuratzeko deitu 948 63 54 58 telefonora

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua can

828 LAGUNEK egin dute gure alde

eskerrik asko!


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Doneztebeko **IRATI ANDUEZA AZPIROZEK** azaroaren 19an 6 urte beteko ditu. Zorionak printzesa eta 6 muxu haundi aita eta amaren partetik.




AINHOA ELGORRIAGA INTZA azaroaren 7an urtea bete du ebeko neskatxa tikiak. Auniz urtez Lesakako familiaren partetik eta muxu pottolo haundi 1.



Irungo **MADDI BAKERO ARAKMAK** urriaren 27an 5 urte bete ditu. Bere ahizpa Nerea eta gurasoen partetik zorionak eta 5 muxu.




NAROA GARBISU ETXABIDE lesakarrak azaroaren 10ean 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



ANE, Peritzeko pottokak 3 urte bete ditu urriaren 31n. Urte askoz ama, atte eta familia guztiaren partetik.



MIKEL JUANOTENA azaroaren 8an urteak bete ditu. Zorionak atauti eta amatxiren partetik. Ongi pasa eguna zure lagunekin!



SARAI ALZUGARAY azaroaren 1ean urtea bete du gure tiki mattiak. Muxu haundi familia guztiaren partetik.



AIMAR ARANDIAK urteak beteko ditu azaroaren 16an. Zorionak etxeko multixoari bere bigarren urtebetetzean familia guztiaren eta bereziki Ainararen partetik. Muxu haundi bat.




AIMAR AGINAGALDE IPARRAGIRREK 4 urte beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama, Oier eta amatxiren partetik.



Gazteluko **ALAIN SARRATEA FAGOAGAK** 3 urte beteko ditu azaroaren 20an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



ASIER LA TORRE etxalartarrak azaroaren 9an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama eta Andoniren partetik.



JON LARRETXEAK gure pottokak azaroaren 4an 3 urte bete ditu. Zorionak eta 3 muxu haundi familia guztiaren partetik.



MATTIN ENDARA OTKOTEKOK azaroaren 7an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aita, ama, Izaskun eta amatxiren partetik.



ARGOITX ERASUN ORTUOSTE etxeko tikiak 2 urte eginen ditu azaroaren 13an. Zorionak aittatto eta amatxoren partetik. Muxu asko bihurtito!



NATALIA GOIENETXE GONZALEZ lesakarrak 6 urte beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



UXUE MATXINENA urrotzarrak urteak beteko ditu azaroaren 19an. Zorionak guraso, amatxi eta Urrozko osaba-izeben partetik. Egun ona pasa.



ANDREA eta UXUEK urteak beteko dituzte azaroaren 25ean eta 19an. Zorionak Burlata eta Eratsungo aitona-amonen partetik.



UXUE eta ANDREAK urteak beteko dituzte azaroaren 19an eta 25ean. Zorionak zuen lehengusuen eta osaba-izeben partetik. Berendu goxoa prestatu. Muxuak.



IKER eta IOAR TAINTA NOBLEK azaroaren 12an 23 eta 17 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik! Segi gogotsu pilotan eta bertsotan!



AITOR eta ENEKO gure bikoteak azaroaren 2an 2 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat!!!



Ezkurrako **AINGERU VALDES ZABALOK** azaroaren 9an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Berako familiaren partetik.



Ezkurrako **MIKEL VALDES ZABALOK** azaroaren 9an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Berako familiaren partetik.



Ezkurrako **MIKEL eta AINGERU VALDES ZABALOK** azaroaren 9an 5 urte bete dituzte. Zorionak bihurtito pareta eta muxu asko etxekoan partetik, bereziki aita eta amaren aldetik.

Zure lagunek maite zaitugu herriak ez du etsi. Mendia, euskara, Euskal Herria ezin bazterrean utzi zure umore, zaletasunek guran dutenez garrantzi lau urte luze pasatu arren ezingo zaitugu ahantzi.

ZURE LAGUNAK



BITTOR TELLETXEAK ELIZONDO lesakarrak azaroaren 7an 5 urte bete ditu. Zorionak 'po po' eta muxu haundi bat anaiaren partetik.



Elizondoko **LEIRE BALLARENA GOIENETXEK** 4 urte beteko ditu azaroaren 16an. Zorionak aita, ama eta ahizpa Naroaren partetik. Ongi pasa eguna printzesita!



IKER eta IOAR TAINTA NOBLEK azaroaren 12an 23 eta 17 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik! Segi gogotsu pilotan eta bertsotan!



AITOR eta ENEKO gure bikoteak azaroaren 2an 2 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat!!!



Ezkurrako **AINGERU VALDES ZABALOK** azaroaren 9an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Berako familiaren partetik.



Ezkurrako **MIKEL VALDES ZABALOK** azaroaren 9an 5 urte bete dituzte. Zorionak bihurtito pareta eta muxu asko etxekoan partetik, bereziki aita eta amaren aldetik.



Ezkurrako **MIKEL eta AINGERU VALDES ZABALOK** azaroaren 9an 5 urte bete dituzte. Zorionak bihurtito pareta eta muxu asko etxekoan partetik, bereziki aita eta amaren aldetik.

URTEBETETZEAK

ZORIONDU

Internet bidez

www.ttipi.net

ttipi txartela rekin beti irabazten da

DESKONTUAK · ZOZKETAK · ALDIZKARIA MUSUTRUK



ttipi txartela egiteko edo zozketatzen
parte hartzeko deitu **948 63 54 58ra**.
Astehenetik ostiratera 09:00 - 18:00.

ZOZKETAK

LIBURUAK
Ibaizabal Argitaletxea
www.ibaizabal.com

KAMISETA + CDa
Bide ertzean
www.bideertzean.com

LOTEA
Kalotxa oporrik-ostagaririk

ALTXORAK & LAPURRAK
Kazetaren Ekarlea
www.kazetari.net

2 KAMISETA
Oninart
www.oninart.com

JANTZIA
Txapela buruan
www.txapelaburuan.com

SARIDUNAK

- ttipi txartela
- LIBURUAK (Ibaizabal)
 - MIKEL CASTILLO (Bera)
 - LOTEA (Martika)
 - MIGUEL MAN IRIGORREN (Etxalar)
 - CD+CDROM (Urtxintxa)
 - OINARTE ZIRKUNEGI (Etxalar)
 - LOTEA (Pirritx, Poirritx eta Marimotots)
 - JUAN ALBA (Irunen)
 - KAMISETAK (Ondeko ta puntxo)
 - GUSTAZO PIKAZENA (Arantzaz)
 - KAMISETA (Txapela Buruan)
 - MARIAN IZASKI (Bera)
 - ANTONIO ARREBEA (Surbilla)
- ttipi saskia
- 2 SARRERA (Artic izutz jauregia)
 - JAIKORRI EKUDERO (Irunen)
 - 2 SARRERA (Donostialako Agurakoma)
 - MADU IRRAS (Ertarra)

ttipi saskia

Bidali SMSa **5767**ra **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA** idatziz

JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

5 krite
2 SARRERA
Mendukilo
ASTIZ (Iruñea)
948 304 095

GAMELOT PARK
TXINGUDI ALCAMPO - IRUN
943 628 218
2 SARRERA

Zozketan parte hartzeko epena azararen 15ko baino lehen irabazteko izenak azararen 20ko aldirian argitaratuko dira. Murrizten kosta 1.20€ EZK gabe. Zure saskia ttipi saskian fitxategi gorriko dia sarraratuak izaten diren ekitaldiak berriz emateko. Zozketako edo zuzendapeneren tud egiteko deitu 948 63 54 58ra.

DESKONTUAK

AYLA
argazkigintza fotografia
%10 kamet argazkietan

DATUCELAY
%10 batera eta smartgaurditan

Deñe
%10 herrietan

edurne
%33 fitx gaurak iruztean

ETXARTE
%10eko deskontua

TXINGUDI DEEJAYS®



DJ/ANIMATZAILE KOLEKTIBOA

EZKONTZAK / BATAIOAK / IREKIERAK
DISKOTEKAK / KARAOKEAK / KARPAK / BESTAK

T 637 513 362 www.txingudideejays.com

EZKONTZAK ETA EKINTZAK

GIRO ETA ANIMAZIO HOBERENAK!